

uk

87. zenbakia / 2005 urriak 2



teatro
antzerkia
getxo

14

20:00 Getxo Antzokia [euskara]. Vaivén
Producciones. NASROVIA. CHEJOV.
22:00 Plaza San Nicolás. Markel Rie. CARBON CLUB.

15

12:30 Algotako Metro Plaza [euskara].
Antzerkizuna. JOSETO ETA ORTIZADARRA.
13:00 Escuela de Música de las Arenas
[castellano]. Gorakada. TITIRIQUENTOS.
18:00 Aretako Musika Eskola [euskara]. Gorakada.
TITIRIQUENTOS.
20:00 Getxo Antzokia [castellano]. Vaivén
Producciones. NASROVIA. CHEJOV.

16

12:30 Algotako Metro Plaza [euskara]. Yareku.
NUMEMES.
13:00 Escuela de Música de las Arenas [castellano].
Gari. Montxo eta Joselontxo. SUPITUKI.
18:00 Aretako Musika Eskola [euskara]. Gari. Montxo
eta Joselontxo. SUPITUKI.
20:00 Getxo Antzokia [castellano]. Ados. COMO AGUA
PARA CHOCOLATE.

21

20:00 Getxo Antzokia [euskara]. Antzerkiola
Imaginaria. AU REVOIR TRIUNFADORES.

22

12:30 Algotako Metro Plaza [euskara]. Xurdi.
XURDI POTRE MUNDUAN.
13:00 Escuela de Música de las Arenas
[castellano]. Malas Pulgas. EL LAZARILLO.
18:00 Aretako Musika Eskola [euskara]. Malas
Pulgas. LAZARILLO.
20:00 Getxo Antzokia [castellano]. Fabrica de Teatro
Imaginario. AU REVOIR TRIUNFADORES.

23

11:23 Algotako Metro Plaza [euskara]. Gorrigo.
JOSEPI BENDARRIA.
13:00 Escuela de Música de las Arenas [castellano].
Troiko. IME LO PIDO.
18:00 Aretako Musika Eskola [euskara]. Troiko.
NIRETZAKO.
20:00 Getxo Antzokia. Deabra Beltzak. LES DIABLES
NOIRS.

Informazioa: info@getxokultura.com
Tfn.: 94 491 40 80

«Horrek bere izango dau atzean zuloa» Euskal esaera zaharra

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Txirindularia Bizkaiko Zubian. Mikel Martinez.
- PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Xabier Paia. Photoshop.
- LEHEN ETA ORAIN. Trena Larrabasterran.
- TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Herri Torrentegi, Asier Mentxaka.
- HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopelana 18.
Berango 20. Gainerako herriak 21.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. Eskualdeko probak, Asier Mentxaka.
- ERREPORTAJEA. Turistak gurean, Unai Brea.
- ARGAZKIA. Gizon-probak Faduran (1985), Antonio Herranz.
- BERBETAN. Marivi Bilbao, U. B.
- FOTOGRAFIA. Hotel Eguia.

KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Lander Labajo eta Ainara de la Torre.
- MUSIKA. Maxia talde getxotarra. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Xabier Etxanizen azkena. Liburuaren erreseinak.
- KIROLA. Arkote Arraun Taldea.

EUSKARAZ

- ELKARRIZKETA. Berta Blanco, Unai Brea.
- AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbao eskutik.

AMAITZEKO

- JAN ETA EDAN. Gaizka Escudoren errezeta eta Itsaso Aranaren
ardaoaren gaineko lezioa. Non jani? Esaterako, Patxeko Etxean.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Egia familia gerra aurrean. Jokin Aspuru.
- AITORMENAK. Andoni Agirregomezkorta. Esti Ezkerra.

Azaleko argazkia: Pikua (Asier Mentxaka)



30 Marivi Bilbao

Berbetan


Askorentzat Marisa da, *Aquí no hay quien viva* telesaileko atso lotsabako sinpatikoa. Baina Marivi Bilbaok bizitza osoa eman du oholza gainean.



46 Berta Blanco



43 Maxia taldea



42 Ainara de la Torre eta Lander Labajo



34 Hotel Eguia



54 Andoni Agirregomezkorta

UK aldizkariak
kazetariak behar ditu

curriculumak bidaltze -

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Arriaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentakia
TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egunola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Esti Etxerra, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Berboto Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak.
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiazea, baimen barik, erabat galarazirik dago
© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaideak da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Erandioko Berboto Euskaraz elkarteen laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Goizoko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Sopelako Udalaren laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eroski Fundazioaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du



94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

gugeu

AgroUK

Sarritan esan digute batetik, usain errurala, baserri girokoa igartzen dela UKren orrialdeetan; bestetik, horrelako ikutu nostalgikoa dariola egiten dugun agerkari honi. Eta egia da. Adibidez, zenbaki honetan aspaldian desagertu zen Algortako Hotel Eguiako argazki zaharrakaz bete dugu fotografia atala. Eskualdeko probalekuetan lotzen diren probarri ahaztuen bila ere abiatu gara. Gai honi loturik, aldizkariaren erdiko orrialdeetan Faduran aspaldian egin zen gizon-proba baten erretratua ipini dugu. Azalean paratu dugun piku gozoaren irudia -orain da pikuak, masustak eta abar jasotzeko sasoia- ere bada aldizkari honi darion baserri usainaren beste adibide bat. Hori bakarrik ez, aurtien piperrak landatu ditugu bulegoan, lorontzi handi batean. Dozena bat jan dugu daborduko.


Txantxetan *agroUK* deitzen diogu guk aldizkariari, era horretako edukiei UKn lekua egiten diegula ohartzen garen bakoitzean. Izugarri aldatu da azken hogeitaz urteotan eskualdea. Txikitan landetan olgetan ibiltzen ginen, txinberagaz ateratzen ginen kalera, pikuak jaten genituen, sagarrak baserritarrei ostu... Gaur egun mundu hori bere azkenetan badago ere, gure gogoan behintzat bizi-bizirik dirau. Eta hori ezinbestean igartzen da. ⁴

UK-ko lantaldea

irakurleak

Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat.
Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

matematika aplikatua



Goizero irakurri > **berria**



Ardi galdua? / *Scooter* edo *vespa* zaleen elkarretaratzegaz topo egin genuen Bizkaiko Zubian. Motorrez inguratutako txirrindularia ere bazihoan, eta haren burutazioak igartzen ahalegindu ginen: “*Gaurko gazteak jaiotzen direnetik daude nekaruta*”. Iragarpen errazegia, agian. Edota bere bi bernen berbak: “*Txirrindulari perfektua motorra*”. Hala ere, antzeman al diozue txirrindulariaren sufimendu aurregiari eta motor-gidariaren barreei? Sufritu osteko gozamena asegariagoa ei da. Baliteke! Azken finean, munduari begiarazteko modu bi. ^m / Agazkia: **Mikel Martínez** / Testua: **Irantzu Sagaminagaga**

Leihatila

> Maddi Albizu

Win Zip

Informatikarekin egunero kontaktuan gaudenok ondotxo ezagutzen dugu era guztietako fitxategiak konprimitzeko erabili ohi den Win Zip izeneko aplikazio txiki hori, tamaina handiegia duten fitxategiak batera eta bestera bidali ahal izateko erabiltzen duguna. Orain dela gutxi lagun batek aho bete hortz utzi ninduten hainbat datu bidali zizkidan. Mundua Win Zip-aren bitartez pasaraziko bagenu ikusiko genukeena erakutsi nahi zidan. Hona hemen bitxikeria hau. Demagun 6.000.000.000 biztanle inguru bizi garen mundua 100 biztanle dituen herrixka txiki bat dela. Herrixka honetan 57 lagun Asiakoak izango lirateke, 21 Europakoak, 4 Ipar Hemisferiokoak eta 8 Afrikakoak. Herrixka honetan 30 lagun besterik ez lirateke kristauak izango, gainerakoak ez-kristauak lirateke. Herrixka honetako aberastasun guztiaren %59, 6 lagun esku egongo litzateke. Eta adi, seiak iparramerikarrak izango lirateke!! Seiak!! Era berean, 80 lagun baldintza penagarrietan biziko lirateke. Gauzak sinplifikatzeak, sarritan, errealitatea argiago ikusten laguntzen du. ⁴

photoshop > eskultura berria Berangon



Irudiak eta manipulazioak: A. M.

IRITZIA

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa gertakari sozial bihurtu da azken urteotan. Laster da jokatzeko azkenekoa. Honen gainean gogoeta eskatu diogu Xabier Paiari.

EHBTX’05
BEC herri baten lekuko

Euskal kulturen elebitasuna derrigorrezkoa zen garaian “Campeonato del Mundo de Versolaris” izena jarri zitzaion Euskal Herriko Bertsolari Txapelketari. Izan ere, bertsolaritza bakarra da munduan.

Planetako lehenengo txapelketa nagusia 1935. urtean antolatu zuten eta ekimenaren sortzaileetako batek jantzi zuen txapela. Bertsolarien arteko lehia formala sortzearen arrazoia argi omen zuten orduko euskaltzaleek: bertsolaritza ostatu, taberna eta sagardotegi ilunetatik atera beharra zegoen. Bertsolaria ezin izan zitekeen alproja, pailazo edo mozkor txistezale hitzen sinonimo. Horra, hiru mende laurden beranduago, bertsolaria termometroaren bestaldean: telebistan aurkezle, irratan esatari, prentsan zutabegile... bertsolarien iritzia eta komunikazio gaitasuna presente daude euskal gizartean.

Bertsogintza ere asko aldatu da 70 urtetan: lehengo gaien lautadak gero eta haran estuago dira, bertsolariak gero eta

gehiago jakin behar du espeleologiaz (geografiaz, mineralogiaz eta beste hainbat logia, eria eta tasunez), gero eta zailagoa da bat-bateko eta idatzizko bertsoak bereiztea... Bertsolariak ere aldatu dira: gero eta emakume gehiago dago, gero eta gazte gehiago, gero eta euskaldun berri gehiago, gero eta bertsolari profesional gehiago...

Gure eskualdetik Fredik eta nik parte hartuko dugu aurten Txapelketan. Lehen aldia da Uribe Kostako bi gaztek Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartuko

«Telebistan aurkezle, irratan esatari... bertsolarien iritzia eta komunikazio gaitasuna presente daude euskal gizartean»

dutela eta inor ere ez da harritu bertan. Ez al da harritzekoa? Ez ba, seinale ona da, duda gabe, ez harritu izana: bertsolaritza Uribe Kostan normalizazio bidean aski aurreratua dagoela esan nahi du horrek. Edo horrela dela pentsatu nahi dut.

Bertsoaren lurraldea badakigu non hasten den, baina ez dakigu non duen bukaera. Akaso bertsoak Turtzioz du mugarri, edo ortzi-muga. Akaso ez du mugarik. Edozein kasutan, ziur nago bertsoak osasuntsu irribarre egingo duela abenduaren 18an Barakaldoko biztanle batek baino gehiagok bere etxeko atea kanpotik ixten duenean.

Finala BECen izango da. Bilbao Exhibition Center Ansion dago. Tira, gipuzkoarrei Becodromoan dela esan beharko diegu. Bertsozale Elkartek 10.000 zale espero ditu egun handirako. Eta guztia zortzi izate eszenatoki baten gainean zortzi ordu inguruz entzuteko, bizitzen ari ez diren fikziozko egoerei buruz kantari, bizi nahiko lituzketen uneak sentiaraziz eta aukera izandakoan bertso-eskolan landutako oin eta argudioak maukapetik aterez. Zein indartsua izan daitekeen hitzaren kirol nazionala! ⁴

Xabier Paia (Bertsolaria)

[orain]



ASIER MENTXAKA

[lehen]



SOPELANKO UDALA

Iraganen doa denbora* beti / TRENA LARRABASTERRAN

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

kirola > Getxo Rugby taldearen aurkezpena

Baja pare batekin eta kanpoko fitxaketen zain aurkeztu berri du Getxo Rugbyk aurtengo denboraldirako taldea. *“Hankamotz hasiko gara ligan eta lehenengo partiduetan sufritzea tokatuko zaigu”*, adierazi digu Tintxu presidenteak. *“Estatu Batuetatik jokalaria bat eta Argentinatik bi ekarri nahi ditugu baina bisatuekin arazoak ditugu, hala ere, gogotsu gaude”*. Senior taldeaz ari gara baina Getxo Rugby taldea hori baino askoz gehiago ere bada. Izan ere, guztira 250 lagunetik gora dabil errugbian jokatzen taldearen maila desberdinetan. ^m



Artea merkatalgunean aurkeztu zuten aurtengo taldea hilaren 14an. Informazio gehiago: www.getxorugby.org

natura > txupoia

Ameriketako Estatu Batuetan Katrinak eragin zuen sarraskiak naturaren aurrean gizakia hutsaren hurrengoa dela atzera ekarri zigun gogora. Zorionez gurean horrelako sarraski naturalak nekez ematen dira; ez dira lurrikarak gertatzen hemen, ezta urakanak ere, ez daukagu sumendirik... Uda amaieran, berriz, gehienok ez badakizue ere tornado batek eskualdea zeharkatu zuen, eta Bermeon tornadoari bere forma dela-eta txupoia deitzen diotela jakin dugu. ^m



Txupoia Galea aldean (Argazkia, Jorge Mendizabal)



Andoni Egaña, gaur egungo txapelarena

bertsolaritza > txapelketa nagusia

Zorte handia geurea! Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiak aurtan berrikuntza handia dakar: orain arte ez bezala, finala Gipuzkoan barik Barakaldoko BECen egingo da. Etxe alboan beraz. Hitzordua abenduaren 18an. Datu bat: egun horretan 10.000 lagun biltzea espero dute antolatzaileek. Bestetik, gogora ezazu txapelketaren historian lehenengo aldiz Uribe Kostako bertsolari bi lehian ibiliko direla: Algortako Fredi eta Xabier Paia anaiak. Zorte on bioi! ^m

Informazio gehiago: www.txapelketanagusia.com



1984 eta 1998 urteen artean mundu mailako 128 lasterketetan korritu zuen Herri Torrontegik

Herri Torrontegi > motor gizona

Euskal motoziklismoak eman duen kirolaririk handiena izan da Herri Torrontegi gorliztarra (Bilbo, 1967). Munduko Abiadura Txapelketan 12 denboralditan hartu zuen parte kategoria desberdinetan: 80 cc, 125 cc eta 250 cc. Podiumaren loria ere gozatu zuen eta adibidez, 1989an munduko hirugarrena izan zen 80 cc-tan. Motoziklismo profesionala aspaldian utzi bazuen ere motor zale amorratua izaten segitzen du Herrik: *“Karrera bera makina bat aldiz ikus dezaket telebistan, lehenengo informatibo batean, gero katea aldatu eta bestean ikusten dut atzera; ez naiz aspertzen”*. Gaur egun motorrarekin lotutako negozioa -zelan ez!- dauka anaiarekin batera eta era guztietako ibilgailuentzako lubrifikatzaileak banatzen ditu. Lantzean behin telebistan ikusten dugu bide-segurtasun kanpainak egiten, *“danon onerako diren gauzen alde laguntzeko prest nago beti, hala ere, korritzea gustatzen zait baina, jakina, errepidea ez da horretarako lekua”*. Belozitatearen “monoa” kentzeko ahal duenean zirkuitoren batera jotzen du. Esaterako, iaz Pedrosa, Barros, Lorenzo eta gaur eguneko puntako beste motoziklista batzuen motorrak probatu zituen, *“300 km orduko abiadura hartzea itzela da”*. Gaur egun ez dauka korritzeko motorrik, baina bai ilobarekin motokrosa egiteko bat, eta eguraldi ona dagoen egunetarako scooterra. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Jokin Aspuru**

Udal euskaltegiak 20 urte

Hogei urte beteko ditu aurten Euskal Herriko euskaltegirik handienak. **la 600 ikasle eta 20 euskara irakasle** dabilta gaur egun hantxe euskararen alde

1985. urtean, HABErekin batera, Getxo Udalak euskaltegia sortu zuen. Gaur egun bezala, helburua Getxoko herritarrei euskalduntze zerbitzua eskaintzea zen. Honezkero 20 urte pasatu dira. Orain urteurren berezi hau prestatzen buru-belarri dabilta beharrean udal euskaltegikoak.

Lau irakasle eta administrazio laguntzaile batekin eman zituen bere lehenengo pausuak Getxoko Udal Euskaltegiak. Denborak aurrera egin ahala euskaltegia handituz joan da eta gaur egun 600 ikasle eta 20 irakasle dabilta han euskararen alde. Urte luze haue-tan egoitza desberdinak izan ditu euskalte-giak. Lehenengo urteetan Martikoenako udal egoitzan egon zen euskaltegia, gero gaur egun Udaltzaingoa hartzen duen eraikinean koka-tu zuten. Urte batzuk beranduago Erromoko Kultur Etxera aldatu zen eta azkenik, 1993an Udalak behin betiko zerbitzu guztiak hantxe biltzea erabaki zuen. Gaur egun eraikinaren bi heren hartzen ditu euskaltegiak.

Esan bezala, azken hogeï urteotan 13.000 pertsonatik gora ibili dira euskalte-gian. Denetarik pasatu da handik: ikasgaia aprobatu nahi duten gazteak, langabetuak, irakasleak, funtzionarioak... Baina denek ezaugarri bera eduki dute: euskara ikasteko gogo bizia. Gaur egun, euskaltegiko iturriek aditzero eman dutenez Getxoratu diren bizi-lagun berriak (hau da, etorkinak) hasi dira euskararen lekukoa hartzen. Izan ere, AISA bezalako egitasmoei esker bizitzeko aukeratu duten herriko hizkuntza ikasteari ekin diote



Udal Euskaltegiko behargin batzuk

euretariko batzuek.

Getxoko Udal Euskaltegia Euskadiko eus-kaltegirik handiena da. Xiberu Etxebarria da gaur egun euskaltegiko zuzendaria eta berak esan digunez *“euskara ez dakiten getxoztarren %49 hori murrizten jarraitu nahi dugu. Egunen*

«13.000 ikasletik gora pasatu dira Getxoko Udal Euskaltegitik»

batean %100ak euskara baleki, pozik eta gustu-na joango nintzateke langabeziara. Bestetik Ge-txon ia-euskaldun den populazioaren %32 hori euskara gehiago erabiltzen animatu nahi dugu”.

Urteurrena

Ekitaldi mordo antolatzen dabilta urteu-

rrena ospatzeko eta gehienak azaroan egingo dira. Esaterako, azaroaren 7tik 14ra erakus-keta fotografikoa egingo da Erromoko Kultur Etxean. Erakusketak euskaltegian 20 urte hauetan bizi izan diren momentuak bil-duko ditu. Azaroaren 10ean Algortako Kultur Etxean “Hizkuntzaren irudia eta hiz-kuntzarekiko sentimendua nola aldatu den” lelopean mahai-ingurua prestatu dute eta Xabier Amuriza, Kike Amonarriz eta Joseba Santxo gonbidatuko dituzte gogoeta egin dezaten. Biharamonean, eta Algortako Kul-tur Etxean ere bai, euskarazko film laburrak eskainiko dira.

Hala ere, urteurrenaren ospakizunak da-torren urteko udaberrira arte luzatuko dira. Orduan herri bazkari handia egin nahi da. m

Euskarazko Zerbitzuak gurean

Euskara Zerbitzua euskaraz eskaintzen diren zerbitzuen berri emateko gida banatzen dabil



Euskara Zerbitzuaren egoitza

Udalerrian euskaraz eskaintzen diren zer-bitzuen berri emateko *“Euskara Zerbitzuak, zerbitzuak euskaraz”* ekimena martxan ipini du Getxoko udalak. Gida bat plazaratu dute non Udal Euskara Zerbitzuaren eta horregaz elkarlanean diharduten elkarte eta erakundeen zerbitzuen eskaintza azaltzen den. Familiaren altzoan gure hizkuntzaren ondorengoetaratzea edo transmisioa bultzatzea da kanpainaren hel-burua. Informazioa non eskuratu daitekeen eta helburu hori lortzeko dauden aukerak azaltzen ditu gidak: gurasoentzako euskara ikastaroak, lantegiak eta bestelako jarduerak, ume eta gaz-tetxoentzako euskara eskolak, euskarazko pro-duktuen katalogoa, udaleku irekiak, kultur eskaintza (zinema, antzerkia...), aisialdiko ekin-tzak etab. Izan ere, ekimenak ondoregoetara-

tzea helburu izanda, kanpaina 1-16 urte bitar-teko haur eta gazteei eta, zelan ez, horien gura-soei zuzenduta dago.

Auzotarren artean gidaren 4.200 ale bana-tzen hasi dira eta beste 800 leku publikoetan ipiniko dituzte. Berez gida hori Bizkaiko hain-bat udalerrietako euskara zerbitzuen koordina-zioa daroan Bizkaiko Foru Aldundiaren Alkar-bide erakundearen babesean sortu da.

Egitasmo zabalago baten barruan

Ekimena eta gida euskararen transmisioaren aldeko beste egitasmo zabalago baten ba-rruan daude, horren baitan garatutako beste ekimen bi honakoak dira: jaioberrei zuzen-dutako “Emaiozu euskara” kanpaina edota udan martxan ipinitako “Euskaraz blai”. m

GETXOKO UDAL ZERGAK %4TIK BEHERA IGOKO DIRA DATORREN URTEAN

Udaleko gobernu taldeak (EAJ, EA, EB-B) irailaren 30eko bilkuran urteko tasak eta zergak %4 baino gutxiago igotzea proposatuko du. Ogasun Sailaren arduradunak jakinarazi duenez, *“justizia birbanatzaile handiagoa lortu nahi da, kolektibo behartsuenen alde eginez”*. Horretarako, familia ugariak edo diru-sarrera gutxi dituzten familiek Higiezinazko Ondasunen Zergaren eta zenbait prezio publikoren hobariak edukiko dituztela esan du. Bestalde, Biotz Sakratu Udal Erresi-dentzian 2002an baino beranduago sartu ziren pertsonak %4 gehiago ordaindu beharko dute, aurretik sartutakoek, berriz, %10 gehiago. Azkenik, Eraikitze eta Lane-tako Zerga eta TAO berdin mantenduko dira.



5.000 SINADURATIK GORA BILDU DITUZTE UDAL TASEN IGOERAREN AURKA

“Udal tasen gehiegizko igoeren aurkako getxoztarrok” herritar ekimenak 5.000 sinadura baino gehiago aurkeztu ditu zarama tasari ezarri zaion %86ko igoera eta udal igerilekuetara sartzeko ezarri den euro bateko tasa berria bertan behera uzteko exijitzeko. Ekimenekoek salatu dutenez, udal gobernuak ez dio herritarren aldarikapenari erantzunik eman, ezta idatzizko eskaera hau aipatu ere. Horrekin batera, udalak jarrera alda dezan atxikimenduak biltzen jarraituko dutela jakinarazi dute, eta sinatzeko orriak hainbat denda, saltoki eta tabernatan daudela gogorarazi.

san inazio

autoeskola

1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP

baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45

ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia oroko-na
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskuina

ALGORTA

94 94 430 76 96

VIEJO

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03

ALGORTA

Elkartasuna

Emakumeentzako etxea eraikitzen lagunduko du Udalak Saharan

Getxoko udalak Emakumeentzako Ja-bekuntza Eskolak osatzen duten beste udalekin, Bilbo eta Gasteizeko udalekin, ATFAL eta RASDen Lagunen elkartee-kin, Emakunderekin eta Euskal Fondo-arekin batera, Smarako andrazkoak susta-tzeko eta biltzeko gunea eraikitzen lagun-duko du, besteak beste, andrazkoek mota guztietako hezkuntza jaso dezaten. Aipatu administrazio eta erakundeek proiektu hau Emakume Saharuien Batasun Na-zionalarekin eramango dute aurrera eta zenbait ordezkari Tindoufen bertan daude dagoeneko proiektua aurrera ateratzeko beharrak bertatik bertara ikusten. ^m

Ume saharaia errefuxiatuen kanpamanenduan





GALEA
ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA
% 94 460 95 12

Hasier Rekondo > Yoga irakaslea

“Euskara bere sustraiengatik eta tradizioagatik yogari oso lotuta ikusten dugu”



Hasier iaz eskolak ematen. Harremanetarako: 605 739 916

Orain dela 12 urte hartu zuen bere lehenengo yoga eskola Hasier Rekondok, gaur egun bere bizitzako ardatz bihurtu dela aitortu digu. EGIZUK antolatzen duen euskarazko yoga ikastaroko irakaslea da bera. Laster hasiko dira eskolak: astelehen eta eguaztenetan (19:30-21:00) San Nikolas ikastolako aretoan.

—Noiz eta zelan erakarri zintuen yogak?
—Ikasle Bilbon hasi nintzen, irakasle oso on batzukaz, Carmen Idigoras eta Jabier Gartzia de Andoain. Ordutik nire bizitza yogari oso lotuta egon da. Gauza bat da zelan ezagutu nituen yogaren teknikak, yogaren egoera aurkitzeko tresnak, eta beste bat, kontzienteki zerbait egiten gabiltzanean yoga egiten gabiltzala ulertzea; yoga kontzientziaren zientzia da. Hasieran mundu guztiak nahi duena bilatzen duzu: lasaitasuna, zure buruagaz ondo egotea... Baina sakontzean, niri itxita zegoen leiho bat ireki dit.
—Zelakoak dira zure eskolak?
—Oso irekiak, iturri askotatik edatea gusta-tzen zait, baina batez ere erlajazio, kontzen-trazio, eta meditazio teknikak erabiltzen ditu-gu. Hiru esparru lantzen ditugu: gorputz fisi-koa, horri lotuta asanak (posturak), gorputz emozionala (arnasketaren bidez), eta pentsa-

gailua edo gogoaren gorputza (meditazioaren edo kontzentrazio eta arretaren bidez).
—Yoga eta euskara ondo moldatzen al dira?
—Asmoa, euskaldun berri eta zahar bereiztu barik, bizitzako edozein jarduera euskaraz normal egitea da. Yoga ekialdeko tradizioitik badator ere mundu osoan garatu da eta eus-karak dauzkan sustraiengatik eta tradizioen-gatik oso lotuta dakusagu, berben eta zen-tzuaren aldetik.
—Eskoletara joateko zalantzan dagoenari zer esango zenioke?
—Yoga teknika desberdinak daude, baina yoga egiten duena norbanakoa bera da eta probatzen eta praktikatzen jakingo du balio-garri zaion ala ez. Zure bizitzan lasaitasuna
“Lasaitasuna aurki dezake, lagun artean, euskaraz eta kontziente izanda”
sartu gura baduzu, lasaitasunagaz zure bizi-tzaren kargu egin, eta gizartearen egoerak gainditu bazaitu, gurean aurki dezakezu lasai-tasuna lagun artean euskaraz eta kontziente izanda. Bestalde, ez arduratu asanakaz. Ba-koitzak berak egin dezakeen ahalegina egingo du, ez gatoz sufritzera, atsegina desagertzen zaionean geldituko da, bere neurrira egingo ditu asanak, yoga bere neurrirako, ahalegina-ren eta atseginaren artean beti. ^m

Antzerki Jardunaldiak

Urriko azken bi aste akabuetan

antzerkiaren mende egongo da Getxo



Nasdrovía Chejov antzezlanaren hilaren 14ean euskaraz ikusi ahal izango da Getxo Antzokian

XXIII. Antzerki Jardunaldiak hileko azkenen-go bi asteburuetan egingo dira. Hamahiru antzerki konpainien lanez gozatzeko aukera egongo da: txotxongiloak, umorezko ikuski-zunak, kale antzerkia... Antzezlana herriko 4 gunetara lekutuko dira: Getxo Antzokiko ekitaldiak 20:00etan izango dira, Algortako Metro plazakoak 12:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolakoak 13:00etan eta 18:00etan, eta Algortako San Nikolas plazako ikuskizun bakarra 22:00etan. Ikusgai egongo diren lanen artean, *Carton Club* eta *Les Diables Noirs* (Deabru Beltzak) berba bako ikus-kariak dira; *Agua para chocolate* gaztelaniaz, eta *Numenes*, *Josexcu* eta *Ortizadarra*, *Joxepi dendaria* eta *Xurdin ipotzen Munduan* euska-

raz, gainontzekoak bi hizkuntzatan ikusi ahal-ko dira. Hilaren 14an *Nasdrovía Chejov* (Vaiven Producciones; euskaraz, Getxo Antzo-kian) eta *Carbon Club* (Markelñe; San Ni-kolas plaza) ikusiko ahalgo dira; hilaren 15ean, *Titirikontukontari* (Gorakada; gazt. 13:00 eta eus. 18:00, Musika Eskola), An-tzezkizuna talde getxoztarraren *Josexcu* eta *Ortizadarra* txotxongilo lana (Metro plaza), eta *Nasdrovía Chejov* (Vaiven Producciones; gazt., Getxo Antzokian); eta urriaren 16an *Numenes* (Yarleku; Metro plaza), *Supituki* (Gari, Montxo eta Joselontxo; gazt. 13:00 eta eus. 18:00, Musika Eskola) eta *Como Agua para chocolate* (Ados; Getxo Antzokia). Bi-garren aste akabuko lanak hurrengo UK-n. ^m

BERTSOLARI BETERANOAK ALGORTAKO TRAGANARRU TABERNAN HILAREN 21EAN

Euskara Zerbitzuaren laguntzaz *III. Bihotza* Gazte saioa antolatu du ALBEk, Algortako Bertsolari Eskolak. Euskal Herrian puntako bertsolari beteranoak ditugu baina sarritan gazteek lekua kentzen diete plazetan. Bertsolari eskarmentudun eta jakintsu hauei lekua egiteko, eta bide batez gazteek euren gaitasunak ikas dezaten, era honetako saioak antolatzen hasi zen ALBE orain hiru urte. Saio hauetan orain arte Jon Lopategi, Jon Azpillaga, Joxe Agirre, Manolo Arozena, Jon Enbeita eta Juan Mari Narbaiza ibili dira. Esan bezala, hitzordua hilaren 21ean (barikua), Algortako Traganarru tabernan eta iluntzeko hamarretan ipini dute ALBEkoek. Gonbidatuak, luxuzkoak: Gregorio Larrañaga *Mañukorta* eta Juan Mari Areitio *Gaztelu*.

Gregorio Larrañaga *Mañukorta*



IBILALDI NEURTUA ANTOLATU DU ITXARTU TALDEAK HILAREN 12AN

Ohitura eutsiz ibilaldi neurtua prestatu dute Itxartu Taldekoek hilaren 12rako. Eta ohi bezala mendi martxa honek Algorta inguruko bazterrak eta mendiak ibiliko ditu. Maila bitan banatu dute antolatzaileek lehiaketa. Nagusiek goizeko zortzi eta erdietan abiatuko dira Algortako Batzokitik, gaztetxuak berriz (10 urte artekoak), hamar eta erdietan abiatuko dira, eta jakina, ibilbide laburragoa egin beharko dute. Aurtengoa ibilaldi neurtuaren XXIII. edizioa izango da eta partaidetza handia espero dute itxartutarrek.

Manuel Martin > Lamiakoko Helduen Hezkuntza Ikastetxeko ikasketa-burua
“70 urtetik gorako ikasleak baditugu eta ikasketak bere garaian utzitako lekuan berreskuratzen dituzte”

Jende askok ikasketak amaitu ez eta lanean hasi behar izan zuen bere gaztaroan. Orain, beriz, haietako askok liburuak apaletik atzera atera eta utzitako bideari ekiten diote berriro. Gaitasunak ez dira garai batekoak, jakina, baina ikasleen jarrera eta ahalegina bistakoa da. Hala dio behintzat Lamiakoko Helduen Hezkuntza Ikastetxeko ikasketa-buru Manuel Martinek: *“Haur edo gazte batek gaitasun guztiak gori-gorian ditu eta nagusiek, epe luzeko memoria bikaina badute ere, epe laburrekoa urritua izaten dute. Bestalde, portaera aldetik ez da inolako arazorik egoten”*. Baldintza bakarrak 18 urtetik gora eta ikasteko gogoia edukitzea dira. Horregatik, adin guztietako ikasleak etortzen dira

«Ikasturte honetan 1.200 ikasle inguru espero dituzte ikastetxean»

Lamiakoko ikastetxe honetara. *“Normalean, nagusienak beheko mailetan (alfabetatze klaseetan) egoten dira. Esaterako, 70 urtetik gorakoak baditugu, eta seguruenik 80 urtekorik egongo da gure zentroren batean”*.

Helduen Hezkuntza Sistema, Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzari begira garatzen da eta bertan eskuratutako tituluak baliokideak dira erabat. Hiru maila daude: aurreneko bietan Lehen Hezkuntza lantzen da, (alfabetizazioa, kultura orokorra...) eta hirugarrenean, Bigarren Hezkuntzarekin bat datorrena. Manuel Martin



“Iaz 200 kanpotar izan genituen gaztelania ikasten”

ikasleak azaldu digunez, ikasleek bere garaian utzitako lekuan berreskuratzen dituzte ikasketak. *“Badago hasieratik hasten den jendea eta badago hirugarren mailako azken bi moduluak egiten dituenen. Hori norberaren hezkuntza espedientearen arabera da”*. Horretaz aparte, ikastetxeak zenbait prestakuntza ikastaro eskaintzen ditu heziketa osagarri moduan: informatika, hizkuntzak, eskulanak... arrakasta handikoak auzokideen artean. *“Kasu honetan ikasleak ez dira titulu bila etortzen trebakuntza zehatz batzuen bila baizik”*. Eskaintzen artean, Manuel Martinek atzeritarrentzako gaztelera klaseak

aipatu dizkigu: *“Iaz 200 kanpotar izan genituen gaztelania ikasten”*.

Lamiakokoa eskualdeko ikastetxe nagusia izaki inguruko Gelak ere antolatu eta koordinatzeko ardura dauka. Getxon, Eran-dion, Sopelan, Mungian eta Derion Helduentzako Gelak daude. Aurtengo ikasturterako 1.200 ikasle inguru espero dituzte. Matrikulazioa dohainekoa da eta materiala baino ez da ordaintzen. Zentroko ikasketa-buruak azaldu digunez, *“urtean zehar banatzen dugun materiala (fotokopiak, apunteak,...) ordaintzeko 10 euro eskatzen ditugu matrikula egiterakoan”*. m

Santiagorako bidea

Donibane Garazitik Konpostelarako bidaia txirrindulaz egin du Raul Revillasek



Guztira 906 kilometro egin ditu Raul Revillasek

Erromes bidea txirrindulaz egiteko asmoa aspalditik zeukan Raul Revillas leioaztarrak. Aurtun bere helburua bete du. Abuztuaren 26an Donibane Garazitik irten eta 10 egunez pedalei eragin eta gero Konpostelara ailegatu zen. Iruñea, Burgos, Leon... guztira 906 kilometro eta hainbat pasadizo. Lehenengo egunean, esate baterako, Donibanetik berandu irten eta gauak bidean zeudela harrapatu zituen, *“azkenean artzain batek etxola eta manta batzuk utzi zizkigun lo egiteko”*. Hainbat egunetako trabak eta nekealdiak, berriz, atzean geratzen dira Obradoiro Plazara bi gorpilen gainean sartzean. *“Erabat betetzen zaituen esperientzia da,*

egun gutxi batzutan gauza pilo egiten dituzu; jende asko ezagutzen duzu, leku ugari ikusi...”.

Bidaia prestatzeko liburuak eta internet erabili zituen. Raulek azaldu digunez, interneten badaude Donejakue edo Santiagorako bideari buruzko orrialde eta gida bereziak, *“bertatik hainbat bide, mapa eta gomendio hartu nituen”*. Zaintzeko kontua, esaterako, gainean eroan beharreko pisuarena da. Izan ere, gehiegizko zamak aldapak igo ezin bihurtzen ditu. *“Komeni da zorroa 8 kilotik ez pasatzea”*. Bestetik, bizikleta asko gustatzea eta *“zela gainean sufritzen jakitea funtsezkoak dira bidean aurrera egiteko”*. m

ANTONIO VEGAREN KONTZERTUA URRIAREN 14AN KULTUR LEIOAN

Nacha Pop taldeko kide ohiak kontzertua eskainiko du urriaren 14an Kultur Leioan. Antonio Vega abeslari madrildarrak 300 *noches con Marga* bere azken lana joko du. Disko honetan artistak bere sentimenduak askatzen ditu esperientzia latz batetik atera eta gero. Emanaldia 20:30etik aurrera izango da Kultur Leioako aretoan. Sarrera 15 euro kostatzen da.

XIX. LEIOAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Urtez urte maila igotzen du Leioako Argazki Lehiaketak. Iaz kalitatezko 188 argazki aurkeztu ziren eta aurtengo ediziorako ez da gutxiago espero. Izena emateko epea urriaren 18ra arte irekita dago eta lanak Kultur Leioan jasoko dira. Kolorezko zein zuribeltzeko argazkirik onenak 350 euroko saria eta diploma eskuratuko ditu. Bestetik, aurtun bada berrikuntzarik. Aurkeztutako irudi guztiekin erakusketa egingo da Kultur Leioan abenduaren 12tik 30ra. Informazio gehiago Kultur Leioan bertan edo 94 607 25 70 telefonoan.

BIDEO LEHIAKETAREN XII. EDIZIOA

Datorren azaroaren 11ra arte irekita dago Leioako Bideo Lehiaketan lanak aurkezteko epea. Lanak vhs, cd edo dvd formatuan aurkeztu behar dira, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Gaia librea da. Zintak gutxienez 4 minutu eta gehienez 11 minutu iraun behar du. Lanak posta ziurtatuaren bidez bidali edo zuzenean entrega daitezke helbide honetan: Kultur Leioa – Jose Ramon Aketxe Plaza, 11; 48940 Leioa. Irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du. Sariduna abenduaren 16an ezagutaraziko da eta urtarrian bere lana Kultur Leioan eskainiko da.



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2

T: 94 463 00 45 - LEIOA

www.euskaltegileioa.com



Mastitu Euskaltegia
Iparragire (Etorbidea, 75-48940)
Leioa (Bizkaia)
Tel. 94 484 90 02
Tel. eta Fax-a 94 480 25 60
e-mail: mastibulego@telefonica.net



ordenagailua + Internet = ikaskuntza personalizatua ordenagailu + Internet = irakaskuntza personalizatua

Atxazperen aste kulturala

Hilaren 17 eta 23 arteko egunetan Atxazpe Mendi Taldeak bere **XIV. Aste Kulturala** egingo du. Juanito Oiarzabal, erakusketak, irteerak, zetreria... ez aspertzeko **makina bat ekitaldi**

Mendizaletasunak jarraitzaile sutsuak dauzka Astrabuduan, eta horiek Atxazpe Mendi Taldeko lagunak dira. Jo ta ke eta eten barik kirol honen alde dihardute gaur egun taldea osatzen duten gazteek. Izan ere, taldetik tiraka dabilzan lagunak 25 eta 30 urtekoak dira gehienak. Hirugarren belaunaldia direla esan digu Unai Castrok: *“Taldea berez 50eko hamarkadan sortu zen, eta eten baten ostean*

«Juanito Oiarzabalek hitzaldia emango du hilaren 21ean Josu Muruetan»

70eko hamarkadan berpiztu zen. Gure belaunaldikoei 90eko hamarkadan hartu zuten Atxazperen lekukoa. Orain taldeko kideak oso gazteak gara, baina badaukagu aurretik ibilitakoan laguntza gure gauza-txuak antolatzeko orduan”.

Atxazpe Mendi Taldeak urtean zehar irteerak antolatzen ditu hamabostean behin eta urtaroarean arabera egun osokoak edo egun erdikoak izaten diren mendirako txango hauek. Neguan elurretarako aste-akabuko bidaia egiten dute eta uda guztietan Pirineotara egun batzuetarako joateko ohitura daukate.

300 bazkidetik gora dauzka gaur egun



Atxazpeko kideak Aste Kulturala antolatzeko batzarrean harrapatu genituen

taldeak, baina Unaik argitu digunez, *“gaur egun mendizale gehienek talde handitan barik lagunarte txikitan egiten dituzte irteerak”.* Bestalde, Atxazperen egoitzan edonork kontsulta dezakeen mendiari buruzko liburutegia daukate, mendirako materiala (pioletak, eskiak...) ere alokatzen dute. Eta zaletuei taldera hurbiltzeko deia luzatzen diete. ^m

Atxazpe Mendi Taldea
T. 94 467 19 01

Ekitaldi batzuk

- **Urriak 21, barikua**
Juanito Oiarzabalen hitzaldia. Josu Murueta, 19:30.
- **Urriak 22, zapatua**
Irteera perretxikoen bila.
- **Urriak 23, domeka**
Zetreria erakustaldia eta bezperan hartutako perretxikoen erakusketa Mendiguren plazan.



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Nerea Urdiain > prentsa saltzailea

“Psikologoarena ere egiten dugu hemen”

Goizeko lau eta erdietan altxatzen da egunero Nerea Urdiain (Erandio, 1970). Ordubete beranduago herriaren erdian daukan kioskoa zabaldu eta prentsa saltzen hasten da bere senarrarekin batera. *“Ikasle txarra izan nintzen eta amak berehala jarri ninduen hemen behar-rean”.* Izan ere, Nereari familiatik datorkio lanbide hau. Bere aitue eta amamak prentsa saltzen zuten Erandion mende hasieran: *“Kioskorik ez zeukaten, prentsa soketan eskegita tren geltokiaren alboan saltzen zuten. Trenera ere igotzen ziren eta han saltzen zuten jeneroa”.* Negozioak jarraipena izan zuen bere amarekin, berak zabaldu zuen kioskoa herrian. Gero Nereak bere senarrarekin batera familiaren tradizioari eutsi dio, eta beraz, hirugarren belaunaldia da. Areetan ere senideak dauzka Nereak prentsa saltzen.

“Jendearekin harremana, horixe da lanbide latz honen alderik onena. Gainera denetarik dagoen arren, Erandioko jendea oso, baina oso, jatorria da”, aitortu digu Nereak *“eta lagun piloia egiten da hemen”.* Prentsa saldu ez eze psikologoarena ere egiten dutela esan digu Nereak: *“Etxean berba egiteko aukerarik ez daukan jendea hemen askatzen da eta guk hemen entzun*



Nerea bere kioskoan

egiten ditugu. Ezin esan daitezkeen makina bat kontu heltzen dira nire belarrietara”.

Baina esan bezala, lanbide gogorra da prentsa saltzailearena. *“Astelehenetik domekara arte egiten dugu behar, hau da, asteko zazpi egunetan. Hemen ez dago jai egunik. Beno, bai,*

baina urtean hiru baino ez dira: Gabon eguna, urte berria eta zapatu santua”. Egun horietan kioskoa itxita egoten da egunkaririk argitaratzen ez delako. Egun guztietan lan egin beharrrak duda barik, lanbide honen alderik latzena da: *“Lagunekin afaltzera joateko aukerarik ez edukitzea ez da oso eroangarria. Behintzat arratsaldeak libre hartzen ditut. Nire aisi denbora*

«Astelehenetik domekara arte egiten dugu behar, hau da, asteko zazpi egunetan»

eskasa dauzkadan hiru txakurrekin ematen dut. Hiru bulldog maitagarri dira”.

Zalantza barik bere lan egunik gogorrena domeka dela esan digu Nereak. *“Egunkari guztiak gehigarriekin, liburuekin eta edozer gauzarekin etortzen dira. Gainera, karuagoa izaten da prentsa egun horietan eta bezeroen kexak ere entzun behar izaten ditugu”.* Gehienentzat lan egunik gogorrena astelehena izaten da, baina Nereak, berriz, lan egunik gogokoena du: *“Astelehenetan behar gutxiago izaten dugu; gainera, hemen azoka egoten da, eta bata eta bestearekin berbetan askoz ere arinago pasatzen da eguna”.* ^m

Euskara ikastaroak Cursos de euskera 2005/2006

IRAILA-EKAINA SEPTIEMBRE-JUNIO

- * Euskalduntze eta alfabetatzea
- * Ega + HABE 1 + HABE 2 tituluak
- * Orduetegi guztiak
- * Euskara zerbitzuaren bekak eta dirulaguntzak
- * Ekitaldiak, euskaraz
- * BOGA, internet bidezko irakaskuntza

- * Euskaldunización y alfabetización
- * Titulos Ega + HABE 1 + HABE 2
- * Todos los horarios
- * Becas y ayudas del servicio de euskara
- * Actividades en euskara
- * BOGA, enseñanza por internet



1985-2005
20. urteurrena

MATRIKULA EPEA ZABALIK

PLAZO DE MATRICULA ABIERTO

*CLASES en Astrabudua (IES Astrabudua) y en Erandio (Bekoa Ikastetxea)



ERANDIOKO UDAL EUSKALTEGIA

HABEren dirulaguntzaz

Bekoa Ikastetxea Desanexión kalea, 4 behe Tel.: 94 467 60 75
erandio.eusk@euskalnet.net / www.erandioko-udala.net



TXOPEL SARIETARAKO
HAUTAGAIK AURKEZTEKO
EPEA HILAREN 15EAN
AMAITUKO DA

Udalak Txopel sarietarako deialdi berria zabaldu du. Jakina denez, sari hauekin Sopelaren alde herritarrek zein taldeek egindako lana saritu eta goraiatu nahi dute udal arduradunek. Esan bezala, lanak zein hautagaiak aurkezteko epea urriaren 15ean amaituko da. Aurkezpen hauek udaletxeko Turismo Bulegoan egin daitezke, edota txopel@sopelana.net helbidera e-maila bidaliz. Bost mailatan banatu dute aurtengo deialdia. Deialdiaren oinarri guztiak www.sopelana.net helbidean edota udaletxera deituta lor daitezke.

HILAREN 17AN BABES
OFIZIALEKO 76 ETXEBITZA
ZOKKETATUKO EI DIRA

Metro geltokitik hurbil eraikiko diren 46 etxebizitzak eta Zaldu inguruan egingo diren gainerako 30ak, hilaren 17an zozketatzeko asmoa dauka Udalak, seguru asko Urko kiroldegian eta eguerdi aldera. Udaleko iturrien arabera, honezkero 300 pertsonatik gora izena eman dute etxebizitza hauetako baten bat eskuratzeko. Udalak ere jakinarazi du gai honetan ardura daukan Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailari, sopeloztarrek lehentasuna izan dezatela eskatu diotela. Etxebizitza hauen giltzak 2007ko udan aldean eman nahi dira.

UGERAGATARREN
ZILARREZKO EZTEIAK

Herrian babes handia eta jarraitzaile asko batzen dituela ikusi ahal izan zen Ugeraga Taldearen 25. urteurrenaren jaietan. Lehengo presidentea, Cefe Amarika, eta gaur egungoa, Jesus Fernandez, hantxe egon ziren makina bat lagunez inguratutik. Jokalari ohiak, entrenatzaileak, herritar andana... Inork ez zuen hutsik egin nahi izan hain egun handian. Zorionak Ugeraga!

TAOa gora eta behera
Udala eta TAOaren aurkako plataforma **mokoka**



Sabotaje ekintza asko egin dira TAOa arautzen duten makinaren aurka

Udalak TAO sistema ezartzearen arrazoiak eta onurak azaldu ditu plazaratutako ohar batean. Eta laster jaso du Anti-TAO plataformaren erantzuna. Horrez gainera, EBK *“udal komunikabideak bere buruari propaganda egiteko erabiltzea eta informazioa manipulatzegatik”* agintean dagoen EAJ alderdia salatu berri du. Izan ere, Sopelana Gurea aldizkariagaz batera banatu ei zuen Udalak TAOren oharra.

Udalaren oharra dioenez: *“aparkalekuen arazoa “erregulatze” balio izan du TAOak eta dauden aparkalekuen erabilgarritasuna hobetzen du; aparkaleku pribatuen erabilera egokiago bati esker eta ibiliz egin daitezkeen tartetaren autoaren erabilera gutxitzeagatik. Turismoarako mesedegarri izan*

da, bisitariari kalitatezko zerbitzua eskaini zaiolako. Garnaio publikoaren erabilera bultzatzeko helburua ere bazeukan, besteak beste Sopelbusek iaz baino 6.000 erabiltzaile gehiago eduki ditu eta. Azkenik, garapen iraunkorrerako eta berenai kitze urbanistikorako beharrezkoa da, horretan oinezkoentzako guneek eta hondartzetara heltzeko guneen hobekuntzak lehentasuna dauka-eta. Kostaldean egindako hobekuntza lanei esker, TAOa barne, Arrietara-Atxabiribil hondartzak ISO kalitatearen ziurtagarria jaso du. Horrez gain, TAOa ezartzeagatik azken hilabeteotan errolatuen kopuruaren erritmoa bikoiztu da...”. Plataformakoek berriz, datu gehienak ezeztatu dituzte eta txarto aparkatutako autoak egoten jarraitzen dutela adierazi dute. ^m

cianoplan

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Gail - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Reprografia

Imprimatze eta plano kopiak •
Kartelak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarketak •

[sopelana]

Txente Martinez > Mundo Verde Garden Center-eko gerentea
“Landare haragijaleek ez dute okela jaten, euren haragia intsektuak dira”

Landare haragijale batek 4,5-25 euro bitartean balio du

Sopelako Gatzarriñe kalean landareen eta animalien paradisu txiki bat topa dezakegu: Mundo Verde Garden Center denda. Negozioa baino pasioa eta tradizioa da ugazabena: “1900 urtean nire birnaititek, Vicente Martinezek, ‘Jardineria y Floristeria Vicente Martinez’ sortu zuen; haren lekukoa aiteitik hartu zuen eta Bizkaiko lorezain garrantzitsuenetakoa izan zen: Bilbo, Neguri, Getxo eta abarreko lorategi inportateenak landu zituen. Ostean, aitak jarraitu zion bideari eta Getxo, Uribe Kosta, Mungia, Burgos, Santander eta abarreko lorategiak prestatu zituen honek ere; horrez gainera lorezaintza zentro bat zabaldu zuen. Gaur egun, aitak, anaia Gonzalok eta hirurok eusten diogu tradiziari. Ostera Garden Center Nazioarteko Elkarteko bazkide aspaldi egin ginen eta onain dela urte bi Mundo Verde izena ipini genion.

Urruneko landare motak eta etxeko animaliak, lora ezagunak eta animalia exotikoak aurki ditzakegu Mundo Verden. Landareei dagokienez deigarrienetakoa haragijaleak dira, “ez dute okela jaten, intsektuak, euliak-eta, din

*eu*rentzako haragia”, argitu du dendako gerente den Martinezek. Hainbat motatako haragijaleak daude: “*Dioanea Muscipulak orrietan itzal bat sentitzen badu, fotosensiblea da, bat-batean itxi egiten da eta eulia barruan harapatzen du; Nepenteak edo Drosenak tronpetatxo antzeko bat dauka eta feromona batzuk askatzen ditu, euliak hantxe bere bikotea daukala ueste du eta likidoan itxi egiten da; beste batzuek ile txikiak dauzkate eta hantxe itsatsita lotzen dira eulitxoak...*”. Beste landare bitxi bat minbera da, “*ikutzenakoan itxi egiten dena*”. Eta zelan ez orkideak ere badauzkate: “*Bakoitzak bere polena garmatzen duen intsektua irudikatzen du berori erakartzeko*”. Horrez gain, barrurako zein kanpo aldera-ko landare mota denak ere badauzkate.

Urruneko animaliak
Bestalde, animalien artean: arrainak, sugeak (boa, pitioia...), muskerrak, iguanak, eskorpioiak, tarantulak etab. eros daitezke Mundo Verden. Eta zelan ez, lorategi, landare eta animaliak zaintzeko, elikatzeko, eta matentzeko beharrezko gai eta tresna guztiak. ^m

LALIAK

Taberna

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

ANDER DEVNA

IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991

nuri haitz
jan eta edan

4 bide

pinturak

RIPOLIN

BONDÉX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

18UK

UK 19

LEHEN, ORAIN ETA BETI



Basurto

Algorta S.L.
altzariak

• **1970**az geroztik
altzariak diseinatzen

• 300 m²ko erakusketa
ZURE ZAIN!

• **ARMAIRUAK
NEURRIRA**
egiten ditugu (Telletxe 4)

ETORRI ETA IKUSI!

ALGORTA

Telletxe 4 • T: 460 71 62

Telletxe 15 • T: 460 42 44

[berango]

Uribe Kosta pilota txapelketa urritik urtarilera arte **makina bat partidu**



Argazkian, Emilio Garcia Berangoko Eskupilota elkarte presidentea

Berangoko Eskupilota elkarteak Uribe Kosta txapelketa antolatuko du beste udalerrri batzuk batera. 20 urtetik gora dauzka Uribe Kosta eskupilota txapelketa, 6 maila desberdinetan jokatzeko eta 170 pelotaritik gora hartzen dute parte. Bizkaia 3 aldetan banatzen dute: Uribe Kosta, Durangaldea eta Enkanterriak. Hala ere, Uribe Kostakoan eskualdekoak ez diren herriek ere jarduten dute: Berango, Urduliz, Sopelana, Getxo eta Leioagaz batera Derio, Zamudio, Lezama, Mungia, Larrabetzu, Etxebarri, Galdakao, Gernika eta Bermeok dihardute. Uribe Kosta txapelketa hilaren 8an hasi eta finala urtarrilaren 29an egingo dute. Gainera, aurten lehenengoz, pilotarien

rakingerako puntuagarria izango da.

Txapelketa horrek adina urte dauzka Berangoko Eskupelota eskola eta elkarteak, eta bertoko presidente Emilio Garcia azaldu duenez 6 mailatan dauzka Berangoko pilotariak: benjaminak, alebina, haurrak, kadeteak, gazteak eta nagusiak; denetara 30 bat pilotari. *“Baina azken boladan futbolak jipoi ederra eman digu, pilota bakarkako kirol oso gogorra da, sufritua... baina ederra eta gura duenak gure frontoia zain dauka”*, aitortu digu Garcia.

Berri pozgarri bat ere eman digu Garcia jaunak: *“Baliteke aurten 4 eta erdiko Berangoko txapelketa ospetsua atzera errekupe- ratzea, baliteke!”*. Hala bedi! m

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoeikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

[plentzia]

Urpekaritza elkarte

Eskualdeko itsas hondoko ezagutzeko aukera eskaintzen du Plentzia Sub-ek



Urpekari bi Plentziako kaian. Harremanetarako: 607 403 154 edo www.plentziasub.com

Orain dela 6 bat urte sortu zen Plentzia Sub urpekaritza elkarte. Eric Zabalegi da buruetako bat, 20 urte baino gehiago daroaz eskolak ematen eta berak dioenez elkarre txikia bada ere, eskaintza zabala daukate. Batez beste urtean 12 bat ikastaro eman eta 30-40 lagun hasten dira edo dihardute urpean Zabalegiren gidaritzapean.

Urpekaritza ikastaro mota eta maila guztiak ematen dituztela azaldu du Zabalegik: *“FEDAS-CMAS-eko ikastaroak, hastapenekoak (izar batekoa), B**, B***...*

**«Urtean 30-40 urpekari
edota ikasle ibiltzen dira
Plentzia Sub-en»**

maila guztiak eta espezialitate denak: urpekaritza kobazuloetan, gauean, ur-lasterretan, erreskate-lanetakoak, BBB (Bihotz-birikietako berpizte) ikastaroak...”. Hastapen ikastaro batek, berbarako, dena barne (ekipoa, material didaktikoa, aseguru...) 300 euro balio du. Ikastaro hori hurrengoan datza: lehenengo saiakera Kai-Eder klubeko igeri-

lekuetan, eskola teorikoak eta itsasora 5 irteera. Zabalegik esan legez *“ikasleak bainu-jantzia, eskupainua eta gogoak ekartzeagaz nahiko”*. Plentzia eta Gorlizko badian, gaztelutxoko eta itsas-argiko kaltetan, Bilano eta Pobre irletan, Barrika inguruan... egiten dituzte saioak.

Eskualdeko itsas hondokoak

Gure itsas hondokoak garbi eta ondo daudela dio Zabalegik, harkaitza direla gehienbat eta ornogabe kopuru itzela, ologarroak, kabratxoak, barbarinak, arraiak... ikusteko aukera badagoela. Alabaina, Zabalegik jakinarazi duenez, *“azkenaldian ez da ia arrainik ikusten, gero eta arrain gutxiago dago”*. Gaixotasunik ezean, 16 urtetik 60 urtera urpekaritzan ibil daitekeela dio Zabalegik. Arriskuez zera argitu du: *“Anauak betetzen ez badira ezbeharrak gerta litezke, gidari batek STOPa egiten ez duenean legez; onurak, osterak, asko dira: urpeko lasaitasun handia, benetan beste mundu bat ezagutzeko aukera...”*. m



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[herriak]

INMIGRAZIOA ZER DEN
JAKITEKO IKASTAROA
ANTOLATU DUTE PLENTZIAN

Gizateriaren historian beti eman dira mugimendu migratorioak. Momentu batean edo bestean danok izan gaitezke emigranteak. Eta euskaldunok asko dakigu honi buruz. Izan ere, herri emigrantea izan gara eta esaterako, Ameriketan euskal jatorriko milaka lagun bizi dira. Orain etorkinak hartzea tokatzen ari zaigu. Ikastaro honekin inmigrazioaren nondik norakoak, arrazoiak eta bere efektuak azalduko ditu sakon Leticia Arroyuelo antropologoak. Ikastaroan parte hartzeko izena emateko epea urriaren 17an amaituko da, matrikula 35 euro kostatuko da eta eskolak martitzenetan 19:30etatik 21:00etara izango dira Plentziako Kultur Etxean.

URIBE KOSTAKO SKATE
ARGAZKIAK GORLIZ ETA
PLENTZIAN

Carlos Terreros algortarra Estatuko skate argazkilaririk onenetakoa da. Berak Uribe Kostan egindako kirol honi buruzko argazki ikusgarrieekin erakusketa ibiltaria antolatu du UK aldizkariak. Irudi horietan azaltzen direnak eskualdeko skater gogoangarriak dira, euretako batzuk gainera profesionalak dira gaur egun. Erakusketa Algortan, Sopelan eta Urdulizen ikusi ahal izan da. Orain Gorlizko kultur etxean egongo da urriaren 16ra arte. Hilaren 17tik 30era berriz, Plentziako kultur etxean ikusi ahal izango dira irudiok.

GORLIZ
Perretxiko erakusketa urriaren 9an Iberren



Chantarellus perretxiko ale batzuk

IV. Perretxiko Erakusketa antolatu dute Iberre auzoko San Pedro plazan urriaren 9an. Han goiz osoan zehar perretxikoen mudua ezagutzeko aukera egongo da. Aurreko egunetan basoetan hartutako perretxikoak erakutsiko dira, denak ondo sailkatuak jendeak ezagutu ditzan. Aldi berean, IV. Gazteen Perretxiko Lehiaketa ere egingo da. Txapelketa honekin gazteak perretxikoen mundura zaletu nahi dituzte antolatzaileek.

Gazteek perretxikoak sailkatzeko euren trebetasuna erakutsi beharko dute. Perretxiko egunean ere bai, basoetako jaki gozo hauek dastatzeko aukera ere egongo da plazan ipiniko diren postuetan. Pintxoak eta beste hainbat gutizia eskainiko zaizkie hara biltzen diren guztiei. Egun honen antolaketa lanak Bizkaiko Perretxiko Elkarteak eta Gorlizko Kultur etxeak hartu dute bere gain. m

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32

Tf: 460 90 31

48990 ALGORTA

20 ANIVERSARIO

20 ANIVERSARIO

ER-1891/2001

CGM-02/006

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net

9E+I

getxo euskalduntzeko hitzarmena

merkataritza

UDALA • AYUNTAMIENTO

Euskaraz Zerbitzua

1 Doako zerbitzuak

• Itzulpen Zerbitzuak

• Euskarazko Testuen Zuzenketa

• Testuen Maketazio eta Diseinua

gehi@getxo.net

2 Euskara ikasteko dirulaguntzak dendetako jabe eta langileentzat

3 Denda, toldo eta ibilgailuen errokulaziorako dirulaguntzak

Zatoz gurerara, hitzarmenera, bildu zaitez euskarara

Getxoko Euskara Zerbitzua

94 466 00 10

euskara.zerbitzua@getxo.net

22 UK

UK 23



Arriaga (Erandio)



Andraka (Lemoiz)



Martiartu (Erandio)



Berango



Eskualdeko probarriak

Herri kirolak deitzen direnek gaur egun ez daukate antzina zeukaten distira. Esaterako, idi-probak egiteko gure eskualdeko herri gehienetan dauzkagu probalekuak. Baina urtean behin, herri bakoitzeko jaiegunetan ez bada, apenas antolatzen da saiorik horietan. Probarri ahaztuen bila abiatu gara. Datu bat, gehienek tona bi inguruko pisua daukate. Pisuzko arrazoi honegatik bada ere, zorionez, nekez lapurtuko ditu inork gure ondarearen zati garrantzitsua diren harri astun eta utzi hauek.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Urduliz



Andraka (Lemoiz)



Ondiz (Leioa)



Getxo

Azken aspaldian, turismoak gero eta indar handiagoa hartu du gurean. Uste genuena baino askoz gehiago daukagu eskaintzeko, antza. Uribe Kostako hamar herrietatik, lauk daukate turismo bulegoa, eta horiengana jo dugu joan barri den uda zelan ibili diren jakin guran. Jeneralean, pozik agertu dira. Azken urteotan, Bilbok gorakada izugarria eduki du alor honetan, eta guri, bertatik bertara egonda, mesede egin digu horrek. Baina hiriburukoen hondarrak jaso baino askoz gehiago egiten dugu, zenbaitzuk aldarrikatzen dutenez. Berezko balioa dauka Uribe Kostak, eta balio hori munduratzeko ahaleginean gabiltza, arrakastatsu itxuraz.

Zabalik ditugu ateak

Turismoa Uribe Kostan

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Kostaldeko herriak, alkartuta

Orain dela lau urte eta erdi, gitxi gorabehera, Bizkaiko kostaldeko hainbat herrik Bizkaia Euskal Kostaldea alkartea sortu zuten, turismoa bultzatzeko asmoz. Horietatik bi, Getxo eta Gorliz, Uribe Kostakoak dira. Iñaki Gerediaga Getxoko zinegotziak azaldu digunez, “alkartuta egoteak gauzak errazten dizkigu, besteak beste, turismo ferietara joateko garaian, gastuak asko murrizten zaizkigulako”.



Uribe Kosta ez da eraikin ikusgarritz jo-sitako ingurua. Katedral handigurak maite dituenak, pare bat eliza duinagaz konformatu beharko da hona etorritz gero. Egia esan, hirigune historikorik ere ez daukagu, Plentziako Alde Zaharra eta Algortako Portu Zaharra izan ezik. Baina horrek ez du esan gura turistei zer eskaini ez daukagunik. Nork berea saltzen jakitean ei dago gakoa, eta emoten du behingoz hala egiten ikasi dugula.

Urterik urte, gero eta jende gehiagok jotzen du gure eskualdeko turismo bulegoetara, eta hala izan da aurten ere. Plentzia da salbuespena: “Aurtengo abuztuan iaz-

«Urterik urte, gero eta jende gehiagok jotzen du gure turismo bulegoetara»

koan baino askoz jende gitxiago etorri zaigu”, diosku Aritz Diez bertoko beharginak, “beraz ezin esan uda ona izan denik”.

Gainerakoak, berriz, guztiz pozik dagoz. “Iazko bisitari kopuruarekiko, %30 handitu da aurtengoa”, azaldu digu Iñaki Gerediaga Getxoko Hezkuntza, Turismo, Merkataritza eta Industria zinegotziak. Gerediagak hiriak berez daukan xarmari egozten dio arrakasta: “Pasealekuak, kirol portua, Bizkaiko Zubia bera...”.

Gure herriek beti eduki dute xarma bera, orde. Izan ere, Getxo, Gorliz, Plentzia eta Sopelana bezalako herriak -turismo bulegoa daukaten laurak, hain zuzen- bilbotarren eta Bizkaiko beste leku batzue-takoen atsedean leku dira aspaldidanik. Hala ere, udatiar oldeak ez ei dira turismo bulegoetan igartzen. “Plentziak bere biztanleria hirukoizten du udan”, adierazi digu Aritz Diezek, “baina horiek ez dira guregana etortzen; izan ere, inailean bisita gehiago eduki dugu abuztuan baino”.

Turismoaren gorakadak, beraz, publizitatean dauka zutabeetako bat. Getxoko Turismo Bulegoak, barbarako, Espainiako

estatuan egiten diren azoka guztietan parte hartzen du, baita nazioarteko askotan ere. Ukaezina da, bestalde, Guggenheim museoak sortutako olatuak laguntza handia emon duela. Olatu horretara igo besterik ez dugu egin, beharbada?

Iritzi desberdinak

“Guggenheimek bisitari mordoa ekarri du inguruko herrietara, eta orain emoten du ondo antolatuta gagozala horri aurre egiteko, baina



Gure turismoa, “ikustekoa” baino, “egitekoa” dela esan digute adituek



gauzak asko hobe litezke”, uste du Plentziako Aritz Diezek. Iñaki Gerediagak, aldiz, ez du ezkututzen Guggenheimek bultzadatxo emon duela, baina ez du pentsatzen turismoaren gorakada haren ondorio hutsa denik. “Erabili egin dugu Guggenheim, jakina, baina oraingo fruituak aspaldidanik

Norberarena ondo saltzen jakitean dago gakoa, baina askotan emoten du ezer saltzekorik ez daukagulakoan gagozala. Adibide eder bat Bizkaiko Zubia da. Iñaki Gerediagak dioenez, “turismo jasangarri plan bat egin genuen orain dela urte batzuk. Kataluniako enpresa bat arduratu zen horretaz,

«Aurpegiratu egin ziguten Bizkaiko Zubiari emon diogun garrantzi eskasa»

egiten gabiltzan beharretik datoz. Getxoko Turismo Bulegoa 80ko hamarkadakoa da, Guggenheim baino lehenagokoa”. Diezek ez bezala, Gerediagak uste du gure eskualdean ezin hobeto egiten dela lan, eta horren frogatzat ipini du Getxoko Bulegoak Q kalitate-ziurtagiria orain gitxi lortu izana.

eta Bizkaiko Zubia gure eskualdeko eraikin bereizgarria zela esan zigun. Hau da, Parisen Eiffel dorrearen parekoa; bertara doan inork ikusteke utzi ezin duen zeozer. Eta aurpegiratu egin ziguten orain arte emon diogun garrantzi eskasa. Hara, Gizateriaren Ondare izendatuko dute-eta datorren urtean!” . m

Zeren bila datozkigu?

Turismoaren ohiko arketipo bat historiaz betetako eraikin eder baten aurrean paratu eta argazki kamera kea bota arte darabilen kanpotar -ahal dela japoniar- baten irudia da. Uribe Kosta, aldiz, nahiko makal dabil horretan. Bizkaiko Zubia, Algortako Portu Zaharra, Plentziako hirigune historikoa, zenbait inguru naturalen edertasuna... Adibide bakan batzuk izan ezik, begien gozamen hutserako gitxi opezten du gure eskualdeak. Horregatik beharbada, gure turismoa, “ikustekoa” baino, “egitekoa” izan ohi da. Bisitari asko dator kigu ekintza bila, eta gure turismo bulegoek eskaintza zabala daukate arlo horretan. Itsas-kirolak, txangoak, abentura-kirolak... Horiek eta gehiago ipintzen dira turisten esku, zenbait kasutan herriaren mugetatik kanpo, eta are sano urrun ere batzutan.

«Behin batean, inguru honetan dagoen zentral nuklear abandonatua ezagutu gura zuela esan zigun turista batek»

Bestetik, Euskal Herria hobeto ezagutzeko eskaera ohikoa izaten da. Hau da, jendea, ohiturak, bizimoduak... “Behin batean, inguru honetan dagoen zentral nuklear abandonatua” ezagutu gura zuela esan zigun batek”, diosku Plentziako Turismo Bulegoko Aritz Diezek. Antza denez, bisitari askok Euskal Herriaren gaineko ezagupide handiak agertzen dituzte. Ez da gauza txarra, ez, etxeko lanak eginda joatea oporretan.

Nondik datoz?

Bitxia emoten badu ere, turismo bulegoetara gehien jotzen dutenak bertokoak izaten dira. Euren oporretarako informazio bila -hori ere emoten dute bulegootan- edo bisitan datozkien lagunei euren herria erakusteko modurik onenaz galdezka. Ondoren, Euskal Herriko beste lekuetakoak -Bizkaikoak gehienbat- dagoz “saikapenenan”, eta hurrengo, Espainiako estatukoak -katalanak batez ere-; haiengandik sano asago aurkitzen ditugu Europako gainerako herrialdetakoak. Frantzia eta Ingalaterra dira, hain zuzen, turista gehien “baltzen” digutenak.



Gizon- probak Faduran

Antonio Herranz

Argazkian Koba, Jaio, Agustin eta Sakoneta (bizkarrez) dituzue harri astun hori herrestan gogotsu eroaten. Epaille lanetan, txapela buruan, Jose Mari Maguregi getxoztarra. 1985 urtea zen eta herri-kirolen eguna ospatzen zebiltzan Faduran.

FADURA, 1985

[berbetan]

Zuetako askorentzat Marisa da, *Aquí no hay quien viva* telesaileko atso lotsabako sinpatikoa. Baina Marivi Bilbao zuetako asko jaio baino lehenagotik egon da oholtza gainean. Antzerki eta zine mordoa egindakoa da Bilbao, baina berak dioenez, telebistari esker sartu da benetan gure etxeetan. Bilbotarra da, eta Bilbon bizi izan da beti, harik eta bere bizitzako kontraturik luzeenak -oraingoak, alegia-, Madrilera joaten behartu zuen arte. Orain urte bi daroaz Espainiako hiriburuan, eta bere karrerako momenturik gozoenez gozatzen dabil. Hori izan da, hain zuzen, elkarrizketa hau hasteko aitzakia, eta lehenengo erantzunetik gauza bat argi utzi digu Marivi Bilbaok: ez dauka berbak alperrikako mozorroz janzteko ohiturarik. Zazpi hamarkadak dagoeneko ondo beteta dauzkatenek goza ditzaketen pribilejio apurretakoa bat da hori. Zuokaz, Marivi Bilbao, oso bizirik dagoen andrea.

Marivi Bilbao

Hemen bada bizitzarik

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Begoña Leal**

—75 urte dauzkazu, baina halako gazta-roa bizi duzula emoten du...

—Ez. Zahartzaroan nago, eta ez ie zadazu esan pertsonak ez direla zaharrak, lelokeria hori entzuteaz nazkatuta nago eta. Altzariak baino ez direla zaharrak, eta hala-koak... Ez ba! Ni zaharra naiz, eta harro nago. “Zahar” berbari oso kutsu txarra emon zaio; hirugarren adina gora, hirugarren adina behera, eta halako ergelkeriak... Niri nazka emoten dit horrek. Zertarako egia makilatu?

—Dena dela -eta hori esan gura nuen-, lanari dagokionez momentu onak bizi dituzu...

—Bai, bai, bai, oso une ona da niretzat. Audientziak gora doaz, nire pertsonaia jendearen gustukoa da... Zer gura duzu esatea? Pozik nago, bai, oso pozik.

—*Aquí no hay quien viva* telesailak lehen ez zeneukan ospea emon dizu?

—Bai, hara, telesailak ospetsu egiten zaitu dirauen bitartean. Amaitutakoan, (mun-

du honetan dena amaitzen da-eta), bere-hala ahazten zaituzte. Ez biharamunean, hurrengo bost minutuetan baizik. Hala da, eta hala uste ez duenak ez daki zertan dabilen. Telebistak ospea emoten du, etxe guztietan sartzen delako. Bizitza osoa antzerkia eta zinea egiten emon daiteke, baina horrek ez dakar osperik. Telebistagaz hauteskundeak irabazten eta galtzen dira, tresna zoragarria da. Gogoratzen naiz... gauza bat konta dezaket?

“Telebistagaz hauteskundeak irabazten eta galtzen dira, tresna zoragarria da”

—Bai, jakina...

—Artean ez ziren hiru urte Espainian telebista zegoela, eta ni gure aitaren etxean nengoen telebistari begira. Halako batean, Kennedy zelan hil zuten ikusi nuen. Zuzenean. Oheratu nintzenean, pentsatu egin nuen: “Jaungoikoa, zelako dimentsioa daukan traste honek, izugarria da”.

Eta begira orain: dena ikusten dugu gertatu ahala. Gerrak, hondamendi naturalak...

—Eta zelakoa da telebistarako lan egitea?

—Hara, hau da nire bizitza osoan eduki dudana lanik luzeena, dagoeneko urte bi eta erdi daroaguz eta. Eta hori primerakoa da, eguneroko ogia oso garrantzitsua delako edonorentzat. Beraz, segurtasun handia emoten dit eta... Parkatu, hozkailura etorri naiz, tabakoa hartzera.

—Hozkailura?

—Bai, hozkailuan sartzen dut tabakoa, zigarro batzuk oso gogor dagozelako, eta hozkailuan apur bat biguntzen dira, non-bait.

—Baimena emoten didazu elkarrizketan hau aipatzeko, edo gure arteko sekretua izango da?

—Bai, zergatik ez? Dena dela, datorren





Hotel Eguia



Manuel Eguia Iturain gatikarra eta Isabel Renteria Bilbao lemoiztarraren ekimenez mende hasieran zabaltu zituen ateak Algorta erdian Hotel Eguia gogoangarriak. Oso bikote ekintzailea zen Eguia-Renteria. Hotela ez eze inguruan beste etxe bi ere eraiki zituzten. Bada, hotela 1905. urtean zabaltu zen eta bertara bilbotar asko etortzen zen uda igarotzera. Atzeritarrek ere bakea bilatzen zuten Hotel Eguian: alemanak, norvegiarrak, frantsesak, madrildarrak... Aldi berean oso hotel familiarra ei zen eta bezeroak sarritan itzultzen ziren, batzuetan txangoak egiten zituzten elkarrekin hoteleko beharginek eta bezeroek. Baina Hotela herriaren bizitzan ere oso ondo txertatua zegoen. Han egiten zituen trebatze saioak Udal Bandak, sukaldean Espainiako txapelduna izatera heldu zen Zubiaga boxeolari berangoztarra entrenatzen zen, Olaetaren baletak eskolak ematen zituen, garai batean ltxasgane dantza taldekoak han trebatzen ziren... Bestetik hantxe ere, kanpoko aldean, udako aste-akabuetan dantzaldi gogoangarriak antolatu ziren. 1967an betiko itxi zituen ateak Hotelak. Hementxe duzue Hotel Eguia izan zenaren irudi sorta.

Argazkiak: **Getxoko Kultur Etxea eta Udal Liburutegia**

Algortako Satistegi kafean Hotel Eguia buruzko erakusketa ikus daiteke azaroaren 3ra arte









zineeskola

Oskar Fernandez

Brighton-eko eskola (I)

Zutabetxo honetan zinemaren hizkuntzan muntaiak daukan garrantziaz behin baino gehiagotan egin dugu berba. Batez ere muntaia paraleloa deitzen denak daukana. Nor ez da hunkitu protagonista edo koprotagonista arrisku bizian dagoela ikustean, eta segituan lasaitasuna eta emozio handia sentitu hurrengo planoan norbait bera laguntzera datorrelako? Adibide grafikoago bat ipin dezagun. Begiak itxi eta irudikatu hurrengo eszena hau: hiltzailea poliki-poliki eskailerak igotzen ditu protagonistaren lagun mina akabatzeko asmoz. Hurrengo planoan, protagonista hiriko kaleen arteik bere autoa abiadura handiz gidatzen du bere maitearen bizitza salbatu ahal izateko. Hiltzailearen planoak, neskarenak eta protagonistarenak tartekatzen hasiko dira emozioa, tentsioa eta suspensea ikuslearengana helarazteko. Era honetako muntaiak asmatzeak zinemaren narratibari baliabide handia eman zion eta muntaia paraleloa deitu zitzaion. Baliabide honi esker -eta beste hainbati esker, jakina- zinemaren hizkuntza aberastuz joan zen apurka-apurka arte maila lortu arte: zazpigarrena hain zuzen ere. Baina, nork asmatu zuen “teknika” hau eta non sortu zen? Britainia Handian, Brightonen, 1900 urtean gertatu zen hau. Han egiten ziren asmakizunek eta aurrerapenek hain garrantzi handia izan zuten non berezko eskola sortarazi baitzuten, gaur egun Brightoneko eskola izenarekin ezagutzen dena. James Williamson izan zen aipatu eskolaren sortzaileetako bat eta zeresan handia eman zuen film harrigarria zuzendu zuen: *Attack on a chinese mission station*. 4

Labourd 1609

filma grabatzen

Algortako eta Ibarako lagunarte baten film luzeak **sorginen ehizaz** ausnarketa egingo du

Mendizaletasunak batu zituen Algortako eta Ibarako (Tolosaldea) lagun talde bi. Lagunarte hartatik jaio zen *Eneko Aritza; Orreagako guda* filma. Algortarren taldeko Lander Labajo eta Ainara de la Torregaz egin dugu berba film horretaz eta film luze berriaz. “*Eneko Aritza... hasikeran guretzat bakarrik egin genuen, baina Mairukoak etorri ziren kaleratzeko baimena eskatuz, eta DVDa egin zuten*”, azaldu du Labajok. Film labur hori baliabide gutxigaz aurrera eroan zitekeela ikusita, film luze bategaz ausartuko dira. Daborduko grabatzen hasi dira eta toki desberdinetatik ibiliko dira: eskualdean (Azkorri hondartzan Algortako traineruagaz...), Iruñean, Hernialden, Ibarran... Hala ere, asko gelditzen zaie oraindik: Urretxun XIII. jauregi bat aurkitu dute, han garatuko da filmaren erdia, eta aldundiaren Ezkio-

«Azkorrin grabatu dituzte eszena batzuk, Algortako traineruagaz»

Itsasoko Igartubeitia jauregia erabiltzeko eskaerak egiten dabilta, barruko eszenetarako. Labajoren berbetan pelikularen istorioa hurrengoan datza: “*Euskal Herriko beste pasarte bat da, inkisizio garaia aukeratu dugu: zelan kriminalizatu ziren sorginak, baina*



Argazkian, Lander Labajo eta Ainara de la Torre

guk ez ditugu sorgin moduan ikusten, gure kulturaren parte legez baino”.

Eneko Aritzaren Lagunak kolektiboa sortu dute, “*gure proiektuak irekiak dira gura duenak parte har dezake: estru moduan, kamera... deialdiak web orrian daude; horrela jende asko lortu dugu, 100 bat lagun gabilta*”, dio Labajok. Leidor (Tolosa) eta Gertxo Antzokian aurkeztuko dute, baina gutxienez urtebete itxaron beharko dugu, *Labourd 1609* izenburuko filma ikusteko. m

Informazioa: www.enekoaritzarenlagunak.net

Ez galdu > Pandilla de pelotas



Richard Linklater

Film honek aukera ederra eskaintzen die gurasoei haien seme-alabekin zinemara joateko eta gero elkarrekin ikusitako istorioaz hitz egiteko. Richard Linklater zuzendari independenteak zuzendu du film bikain hau. Istorio hau aurretik pantailara eramana izan arren bertsio berri honek indar handiagoa dauka. Aktoreek lan ederra egin dute eta benetako sentimenduak eta emozioak transmititzen dituzte. Abokatu batek jokalaria ohi bat ume talde bat entrenatzeko konbentzitu du, baina talde hau ez da batere ohikoa, moldatu gabeko umeak dira eta. Lehiaketa galduko dute, baina elkarrekin bizi izango dituzten egoera desberdinek (latzak, aberatsak, interesgarriak edota hunkigarriak) euren bizitzak aldatuko dizkiete. Umeen bizitzek inork espero ez zuen bidea hartuko dute.

Maxia: estilo etiketaezina

Gabonetarako kaleratuko dute **lehenengo lana**



Laster sartuko dira grabazio estudioan Maxiakoak estreineko lana egiteko

Ikus-entzuneko lanek musikagaz bat egiten dute Maxia taldean. Jabier Letamendia (bateria), Jabi Martin (baxua), Mikel Caballero (gitarra) eta Miguel Moyano (gitarra eta ahotsa) laster sartuko dira estudioan euren lehenengo diskoa grabatzera, Portugaleteko Norte Estudiosen. Taldea orain hiruzpalau urte sortu zen, “*zeozer handia sortzeko helburuagaz*” (hortik taldearen izena), baina apurka-apurka doazela aitortu du Moyanok, taldekide bakoitza beste proiektu batzuetan sartuta dagoelako. Izan ere, ezagunak dira laurak musika munduan, laurek dihardute beste talde batzuetan, hurrenez hurren: Standard, Hoorn, Gatibu eta Eder. Horrez gainera,

Moyano Algortako Riff musika denda eta eskolako buru ere bada.

15-16 kantako diskoa osatzeko asmoa daukatela aurreratu du Moyanok, “*onain artekoak eta berriak ere egongo dira, eta DVD bat kaleratzen ahaleginduko gara, ikus-entzuneko lanak ere batzeko*”. Ikus-entzunekoak zinema errealizadore nahiko ezagunek egin dituzte beren-beregi Maxiarentzat. Baten bat aipatzearren: Koldo Serrak edota Inaz Fernandezek. “*Letrak eta musika pasatzen dizkiegu, eta agian eurek hirugarren ikuspegi bat aurkitzen diote, berbarako, abesti batean 3 istorio desberdin daude: irudiek azaltzen dutena, letrak kontatzen dizuna eta off-eko ahotsaren narrazioa*”.

Dana >

Urdangarinen berria



Zazpigarren lana aurkeztu du Mikel Urdangarinek. Urte beteko ixilunearen ostean, 12 kantaz osatutako *Dana* (Elkar) diskoa dakar

besapean kantautore zornotzarrak, “elektro, eritmiko eta eklektikoagoa”. Bingen Mendizabalen biolinaz eta kontrabaxuaz eta Rafa Ruedaren gitarraz gain, oraingo honetan Fernando Sayelaren bateria, Pablo Tatoren saxoa, Koldo Uriarteren pianoa eta Pello Ramirezen biolentxelo izan ditu lagun Urdangarinek. Alabaina, kontzertu-irudiak grabatzeko Dana-ren kontrakoa aukeratu du Zornotzakoak: Erandioko ontziola behartoki zahar eta huts bat. ETBk grabatu eta kaleratuko du DVDa. Hurrengo kontzertua: urriak 16, Arriaga (Bilbo).

Maxiaren musika estiloaz galdeginda zera diosku Moyanok: “*Etiketak jartzearena kritikoen kontuak dira; batek rock audio-bisuala legez etikatu gaitu, besteak pop elektroniko edota rock progresibo moduna, etab. Guk abestiak egiten ditugu, ez zaizkigu etiketak gustatzen, entzun gura genukeen musika egiten ahalegintzen gara*”. Maxiakoek rock kontzertu bat baino gehiago eskaini gura dute, “*musikagaz bat egiten duten irudi multzoa, ikusentzulea ikuskizunean barnenatzeko eta partaide egiteko formulak aurkitzen ahalegintzen gara*”, diosku Moyanok. m

Informazio gehiago: www.maxia.info

diskoak

80th birthday
BB King & Friends
Universal Records



Irailaren 16an 80 bete zituen BB Kingek. Eta zelan ospatu du gitararen maisuak urtebeteze berezi hau? Bada disko berria grabatzen. Eta berari gehien gustatzen zaiona egin du bere azken honetan: duetoak. Erne, beste askoren artean Bobby Bland, Eric Clapton, Sheryl Crow, Roger Daltrey, Glenn Frey, Elton John, Billy Gibbons, Mark Knopfler, Hall & Oates...

Abenduak 29
Jabier Muguruza
Resistencia



Gero eta minimalista eta intimistagoa agertzen zaigu Jabier Muguruza. Zortzigarren disko hau bere akordeoia, Angel Unzuren gitarra eta Mireia Otzerinjaregi kantariaren ahotsaz eginda dago. Horrekin eta luxuzko kolaboratzaileen testuekin: Bernardo Atxaga, Kirmen Uribe, Harcaitz Cano... Jorge Drexler-en kolaborzio berezia ere eduki du Muguruzak.

Duna
Sorkun
Errabal Jazz



Fermin Muguruzarekin batera egindako nazioarteko biren ostean hemen dugu *Duna*, euskal musikagintzak duen ahots garrantzitsuenetarikoa. Sorkun ez ari gara jakina. Letra larri idatzitako KANTUen bilduma hau ez duzu galduta nahi izango. Ekoizpen musikal zoragarria, soinu tratamendu berri batekin.

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00



GA
GALEA
ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA
% 94 460 95 12

[liburuak]

HGLren kanonaren bila

Bi antologiatan haur eta gazteentzat aproposak diren irakurketak bildu ditu Xabier Etxaniz Erlek

Azken urte hauetan asko aldatu da euskal haur eta gazte literatura. Orain inoiz baino liburu gehiago argitaratzen da, eta kalitatea ere gora doa urtetik urtera. Alabaina, horrek ez du esan nahi irakurketa guztiek estimazio bera merezi dutenik. Aurreko lan batean jada Xabier Etxanizek eta Manu Lopez Gasenik argi utzi zuten esparru honetan kanon bat ezartzearen beharra dagoela, guraso zein irakasleei haur eta gazteentzat aproposak diren irakurketak aukeratzeko lagunduko liekeen kanona alegia. Asmo horrekin apailatu ditu Xabier Etxaniz Erlek *Euskal Haur Literaturaren Antologia* eta *Euskal Gazte Literaturaren Antologia*, Elkarrek argitaratutakoak biak.

«Liburu pasarteak ez ezik, idazleei buruzko informazioa biltzen dute antologiek»

Etxaniz Erlek bi helbururekin osatu ditu antologiak: batetik, EHGL modernoaren egoera zein den azaldu nahi du, gaur egungo idazlerik adierazgarrien lanen lakinak aurkeztuz; bestetik, antologietan bilduta dauden idazlan zatietatik abiatuta liburua osorik irakurtzeko gonbita luzatu nahi dio irakurleari, baita egileen



Liburuaren azala

gainerako lanak ezagutzera animatu ere. Gazte literaturaren antologian hogeita hiru idazle eta berrogeita hiru libururen pasarteak agertzen dira, eta haur literaturaren antologiak hogeita zazpi idazle eta berrogeita hamasei libururen pasarteak biltzen ditu.


HGLaren esparruan irudiek letrek bezainbesteko garrantzia dutela jakitun, Etxaniz Erlek zenbait marrazkilariren lana ere jaso nahi izan du bi antologia hauetan. Hain zuzen, azken urteotan Euskal Herrian ilustraziogintzak bilakaera sendoa izan du, eta euskal marrazkilariek maila handia erakutsi dute. ^m

liburuak



Aitortza
Abelin Linazisoro
Txalaparta

36ko gerrak milaka gizon, emakume, haur eta agure hartu zituen bere zurrunbiloaren baitan. Eleberri honek ahaztura den naufragiotik salbatu nahi ditu protagonista hauetako batzuen egunerokotasuna, poza, beldurrak eta maitasuna, Xixili narratzailearen ahotsaren bitartez.



Bidaia iruzenak
Amaia Iturbide
Erein

Ipuinak bidaia txartelaren zehaztasuna izan behar du, trapezio-harien eta errailen patu-zentzua, lore arraroaren pozoia, harribitxiaren imana. Xehetasun hauek guztiak harrapatzeko ipuinlariak barrutik esploratzailez jantzi beharra dauka, ipuinak bidaia iruzenak izaten baitira.

[kirola]

Zorionak Arkote!

Kontxako Ohorezko txandan izan dira aurten eta **Bizkaiko txapelketa** irabazi dute plentziarrek



TKE ligako lehenengo urtea ederto egin du traineru beltzak

Arkote Arraun Taldeak urte 2 barru beteko du 50. urteurrena, baina azken 2 urteotako lorpenek zorionak aldeztu aurretik ematera behartu gaituzte. Hastapenetan “Sociedad Remera de Plencia” izenpetu zuten elkarteak, eta 1957az geroztik da Arkote Arraun Taldea. “*Itasadarreko harkaitz bien izena da, hori aukenatu zuten zelanbait eremua zabalitzeko, Plentziako arraunlariak gain ingurukoak ere enakartzeko*”, jakinarazi digu azken 17 urteotako presidente den Jose Bergaretxek.

Gaur egun, jesarleku-mugikor eta finkoan haur, kadete, gazte eta senior mailatan lehiatzen dira Arkotekoak, emakumeen zein gizonen alorretan. Denetara 70 bat arraunlari osatzen dute taldea, gehienak Plentzia, Gorliz, Sopelana eta Urduliz ingurukoak dira.

Poz handien, iaz eta aurton, traineruak eman die Plentziakoiei. Pasa den urteko denboraldia itzela izan zen, “*11 ikurrina ontziratut genituen*” akorduan dauka Bergaretxek, eta TKE (Traineru Kluben Elkarte) ligarako txartela ere lortu zuten. “*Aurtengo denboraldia*

gogorragoa izango zela bagenekien, helburua mailaz ez jaistea zen”, aitortu du presidentek. Baina hori baino gehiago lortu du traineru beltzak: Bizkaiko txapelketa, eta lehenengoz Kontxarako txartela, gainera Hondarribia, Astilleros eta Castrogaz batera Ohorezko txadan. “*Pastelaren ginda izan zen; beste txanda batean jardun izan bagina hobe, azken txandan ipini zelako itsasoa okerren; baina benetan ederra izan zen, Arkoteko banderak Hondarribiakoak baino gehiago zirela zirudien, kamiseta hori eta beltz asko...*” dio presidentek.

Harrobia eta hurrengo urtea

Harrobiaz ere jardun du Bergaretxek, “*asko zaindu behar dugu, ez gara-eta fitxaketak egiteko diru asko daukaten klub horietakoa; bide batez Uribe Kostako sponsorren laguntza eskatu eta eskertuko genuke; azken finean Uribe Kostako trainerua gara*”. Amaitzeko, datorren urterako presidentearen esperantza hurrengo da: “*mailaz ez jaistea, eta hortik aurrekoak ondo etorriak izango dira*”. ^m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 ^{m²}
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
Lacofris, s.l. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITTUA

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

HIRURAK T: 430

Sarrikobaso 15

Berta Blanco > petrolio-ontzi bateko ofiziala

“Konpainiari irudi ona emoten dio ontzian andrazko ofizialak edukitzea”



Hiru hilabete beharrean eta beste hiru lehorrean ematen ditu Bertak

Berta Blanco, Burgosen jaioa izanagatik ere aspaldi bihurtu zen algortar. 31 urte dauzka, eta lau eta erdi egin ditu dagoeneko marinel. Era desberdinetako ontzietan ibili ostean, gaur egun 100.000 tona erregai daroazan petrolio-ontzi bateko hirugarren ofiziala da, AEBtako petrolio-konpainia baten aginduetara. Lehorraldian harrapatu dugu Blanco, berbalditxo xume hau zuenganatu ahal izateko.

—Nondik datorkizu marinela izateko guraria?
—Gure aitak ontziak maite zituen, baina ez belaontziak, merkataritza-ontziak baizik. Herri batera joaten ginen bakoitzean, bisitatzen genuen lehen lekua merkataritza-portua zen. Pentsatzen dut hortik datorkidala.
—Zenbatero egiten duzu lan?
—Hiru hilabete emoten ditut beharrean eta hiru lehorrean. Nahiko baldintza onak dira.
—Eta ontzian, egunero daukazu beharra?
—Bai. Ontziak eguneko 24 orduetan fun-

tzionatzen du, eta guk goardiak egiten ditugu. Lau orduko bina goardia dira egunero, baina horiek nabigazioari baino ez dagozkio. Horrez gain, beste lan batzuk egin behar dira. Ni, hain zuzen, ontziaren segurtasunaz arduratzen naiz. Argi esateko, nire atseden egunak asteburuak dira, eguneko zortzi orduz baino ez dudalako lan egin behar.
—Andra gehiago dago ontzian?
—Beste bat. Ni bezala, hirugarren ofiziala eta getxoztarra da. Konpainian bigarren ofiziala izatera ailegatu zen lehen andrazkoa izan zen.

—Baina ohikoa da emakumeak egotea?
—Ez, baina gitxika-gitxika gero eta gehiago gara. Konpainia pozik dago gainera, euri irudi ona emoten dielako andrazko ofizialak edukitzea, eta gainera unibertsitate-tituludunak. Izan ere, Europan ez da ohikoa unibertsitate-titulua behar izatea.
—Hala ere, gizon mundua da oraindik?
—Bai.
—Eta zu oso “gizona” zara beharrean?
—Ez. Zubian gonaz jantzita egoten den bakarretakoa naiz. Gizonen lanbidea izan da hau, baina uste dut andra batek ez duela zertan gionez moztarrotu, berau egiteko.

«Jeneralean guk ez daukagu istripuen errurik, ontzia gidatu baino ez dugu egiten»

—Non hartzen duzue petrolio?
—Jeneralean, Venezuelan eta Mexikon.
—Ekialde Hurbila baino lasaia goa izango da behintzat...
—Hara, itsaslapurrak dagoz. Nik, zorionez, ez dut erasorik bizi izan.
—Petrolio-ontziak ontzirik polemikoenak dira. *Prestige, Erika, Exxon Valdez...* Berba egiten duzue horretaz, zer iritzi daukazue?
—Betiko kontua da. Ni nagoen lekuan ondo prestatutako beharginak kontratatzen dituzte, baina beste leku batzuetan ez, eta gainera ontzi batzuk benetan txarto dagoz. Horregatik jazotzen da jazotzen dena. Tristeena ontziko kapitaina atxilotuta ikusi behar izatea da. *Cangraís* horiek -hala esaten diegu oso kaxkar dagoen ontzi zahar horiei- egunero ikus daitezke mundu osoko portuetan, eta hor segitzen badute neurriak hartzen ez direlako izango da. Dena den, guk ez daukagu errurik; ontzia gidatu baino ez dugu egiten. m

Esakere > “Bart brome ixen du eta gaur aje”



Irudia: Gorka Vazquez

Aje edo óste. Halan ixeten da beti, gehiegikeriten ibilli ezkeron ordaiñe eskatuko dosku gorputzek. Baia nok esan hóneri morroiori bestala egongo zirela bart etxera goxeti yonta? Ja! Askotan entzun dogun lez, yántzan májo ibil direz eta kedúietzezu oiñ eiñ dauden yántze! Aje edo oste edo biharamone yóngo da, baia yántze ta alaitasune gordéta dauke betireko! (Bueno, momentu honetan ézotzezu alaitasun handirik eskatu, bádaezpadan).

Esakeratxu hau I. Gilisastin “Berba lapikokoa” liburu ederratik atara dogu.

Gureberbakere65

ZELAN ESAN

Laguntziño eskatuteko eta opetziteko

Testua: **Xabi Bilbao**

Laguntasiño edo laguntziño opetziteko

- Konpontzen zara/zare bakarrik?
- Ber (behar) dozue nonor lagunduteko?
- Ber (behar) dozue zeozer?
- Larri zabiltzez/e? Ointxe noa!
- Ingot (egingo dot) inderra hemetik?
- Itxedon hor apur bet! Banoa laguntziñon bille!

Laguntziño eskatuteko

- Lagundukostezu/e (lagunduko dostezu) apur bet?
- Badekozue momentutxu bet lagunduteko?
- Ingozue (egingo dozue) inderra hortik?
- Ekarkozue nonor lagunduteko?
- Lagundu, mesedez!

Erantzunek

- Bai, zelan ez! Ze in ber (egin behar) da?!
- Bai, ointxe noa horrantza!

- Bai, ointxe etorko naz lagun batzukez!
- Bai, itxédon apur bet!


- Oin eztekot astirik, gero etorko naz.
- Nik enei (ez nei) askorik iñ (egin), baia lagun bet ekarkotzut!
- Eleite ezer iñ gizona! Itxizu daun lez!

Adibidek

—*Ño, goxeti zauz altxáta! Nok bota zatuz ohitik ba?*
—*Goxeti altxa ber honek beharrak akábateko...!*
—*Ber dozu lagúndute?*
—*Keba! Kasik akábata dekot: prepáraizu amákatakotxu bet.*
Hori bai eskértukotzut!

—*Ia, mutillek! Zúok zare morróskok eta, ingozue bultzekade apur bet automóbillek urten dáien, ezta?*
—*Zélan ez! ... Zaia zatoz zeu bere bultzekade iten eta itxi niri bolánte!*

—*Hara zénbet perretxiko batu dóten! Lagúndukostezue yáten?*
—*Zuk batúkok direz...? Ba, nik eztekot goserik, baia ékarkotzut lagun bet. Gero arten!*



Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Barazkien panatxea

Barazkiak jeneralean gehiegi egiten ditugu eta gainera denak batera egosteko ohitura daukagu. *Panatxe* honekin aurkakoa proposatzen dizuet. Helburua barazki *boquet* ezberdinak sortzea da eta jakina egokiena sasoian sasoiko barazkiak erabiltzea da.

Barazki bakoitza bere aldetik ontzi batean ur asko, gatza eta olioa apur bategaz egosi behar da bere puntua hartu arte eta hobe apur bat gogortu lotzen bada, hau da, *al dente*. Barazkien kolorea (batez ere berdeak) eta puntua mantentzeko onena egosi bezain pronto izotzez betetako ontzi batean sartzea da. Bestetik frijitua prestatuko dugu. Oliba oliotan berakatzatza ipini eta urreztatu baino lehen pernil zatiak gehitu. Aurretik egindako saltsaren bat badaukagu (bizkaiko erakoa, tomatezkoa...) ere gehitu. Platerean ipini barazkiak norberaren gustuaren arabera eta gaintetik frijitua bota. m

osagaiak

brokolia • azalorea • azenarioa • lekak • zerbak
oliba olio • gatza • pernila



itsaso arana / jolastokikoa

Hondarrabi zuri

Gurean baino landatzen ez den mahatsa da *hondarrabi zuri*, hau da, ez da beste inon lantzen, autoktronoa beraz. Inguru fresko eta hezeetara ederto egokitzen da eta horregatik hazten da hain ondo hemen. Txakolina egiteko erabiltzen den mahats nagusia da *hondarrabi zuri*. Jakingo duzuenez hiru jatorri izendapen ditu txakolinak gurean: Arabako Txakolina (Amurrio eta Laudio inguruko mahastiak), Bizkaiko Txakolina (Bakio eta Enkarterrien arteko lurraldeetakoak), eta Getariako Txakoloina (Getaria, Zarautz eta Aia ingurukoak).

Hondarrabi zuriak, ardao freskoak, afrutatuak eta fruitu berdeen aramodunak (sagarra, belarra...) ematen ditu. Ardao freskagarriak garraztasun ikutu batekin, sekula gehiegizkoa izan behar ez duena. Sudurrean intentsitate ertainekoak. Gogoratu behar da Araban klima dela-eta, txakolinak ez direla hain garratzak eta apur bat alkoholikoagoak izaten direla. Baina esan bezala hondarrabi zuriaren ezaugarriarik azpimarragarriena ematen duen usain berdea da.

Gaur egun mahats hau baliatuz ardao berriak ere egiten hasi dira, esaterako, Itsas Mendi markak ardao gozoak egiten ditu. Horretarako uzta berantiarak egiten dituzte.

Azkenik, aipatu irailaren amaieran eta urriaren hasieran jasotzen dela hondarrabi zuriaren uzta, hau da, egunotan. Aitzakia ederra txangoa egiteko. m

[nonjan]

Patxeko etxea

jatetxea, taberna eta askoz ere gehiago



Estibaliz eta Andoni Patxeko; alboan euren ama, Encarni Velazquez. Argazkian, Beatriz Patxeko falta da.

Patxekotarrek ia 30 urte eman dituzte Algortako taberna hau aurrera ateratzen, taberna hartzen duen eraikina egin zenetik hain zuzen ere. Orain dela urte bi arte (hau da, jubilatutako zen arte) Jose Antonio Patxeko *Andoni* izan zen nagusia. Gero bere semeak hartu zuen tabernaren lekukoa. Baina bera-ekin batera, Estibaliz eta Beatriz arrebak dabilta lanean. Sukaldeko lanak euren ama Encarnik egiten ditu, negozio familiarra da-eta Patxeko Etxea.

Taberna *todoterrenoa* da Patxeko Etxea. Zergatik? Denetarik eskaintzen dutelako han. Esaterako, pintxoak. Jakin dugunez tortilaz-koak eskuetatik kentzen dizkiete. Errazioei dagokionez, asteburuetan rabak eta langosti-noak (euro bitan) barra-barra saltzen dituzte.

Baina hanburgesak, otartekoak edota plater konbinatuak ere eska daitezke. Eguneko menua txukuna eta ingurukoekin alderatuz merkea da: 7 euro eta erdi. Normalean, afari-rik ez dute ematen baina enkargua eginez gero bai. Eta pozik prestatzen dituzte norbe-raren aurrekontuaren arabera.

Esan bezala *todoterrenoa* da Patxeko Etxea, izan ere, gauza gehiago antolatzen dituzte ber-tan. Bariku gauetan (22:00, 23:00 eta 00:00-etan) bingoa egoten da bertan eta sariak banatzen dituzte. Asteburuetan kinitoa ere egiten da. Danerik egiten dute patxekotarrek! m

PATXEKO ETXEA
Bidebitarte, 9 - Algorta
T.: 94 430 61 27

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asado
r



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gus-tura
- Egunero karta berezia
- Gazez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua

Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

G **gOZOLABEA**
galdaretxe
• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

UK aldizkariak
kazetariak
behar ditu



curriculumak bidaltzeko

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / 48991 Getxo
uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37

[horoskopoa]

URA
t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Mendira txangoa egin ostean hiru egun ia ibili ezinik egon zela kontatu zizun lagun haren kontura lehertzeko zorian egin zenuen barre. Alabaina, hark gixxienez giharrak astindu ditu! Zureak ugerrez estaltzen hasi dira!

OTSOA
t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Zaunka zabilta eguzki eta ilargi. Alabaina, jakin badakigu ez dakizula ausiki egiten! Egunen batean zu baino zaunkariago den bat aurkitu eta orduan ixilik eta kokilduta geldituko zara! Kontuz gero, hura txakur haginkaria izan daiteke-eta!

ADARRA
t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Kostata baina azkenean hartu duzu erabakia. Orain ez dago atzera bueltarik. Datorrena datorrela, paradisua edo infernua, etorriko den legez onartu beharko duzu. Baina ez ahaztu askok eraiki dutela euren oasi txikia infernuko atean.

AITZURRA
t




(Martxoak 21 apirilak 19)
Beti irribarrea ahoan ibiltzea, orduro berba atseginak eskaintzea, minuturo lagun ulerkor izatea... ez da lar osasungarria. Lantzean behin ateraldi purrustadatsuek edukitzea, jenio biziz sutzea, umore txarreko jardutea... lasaigarri liteke, egoerak merezi baldin badu.

HOSTOA
t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Zozoak beleari: ipurbeltz, astoak mandoari: belarriuze, huntzak biligarroari: buru handi eta zuk lagunari alferrontzi! Potrojorjan ematen dituzu 24 orduak! Horrela aberatsak bakarrik bizi litezke! Eta amaren poltsikoetan ez dago 20 eurotik gorako bileterik!

EGUZKIA
t




(Maiatzak 20 ekainak 18)
Zenbat nahigabe bata bestearen ostean! Etrazau galdu burua gupidagarri zarela pentsatzen, erabili denbora aurrera egiteko. Iraganak ez du aldatzeko aukerarik eskaintzen, gertatutakoa ulertzea eta lezioa ondo ikastea da biharramunari heltzeko gakoa. Eutsi horri!

GARIA
t



(Ekainak 19 uztailak 18)
“Buru gabea beti lehen lerroan, guziek ikus dezaten; buruduna beti azkenean, guziak ikus ditzan” dino esatera zaharrak. Eta erdian ere gelditzen direnak ere badira! Zuk zein multzotan kokatzen duzu zeure burua? Egin gogoeta!

LASTOA
t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
1-3-9-15-18-29 osagarria: 33, itzulketa: 9. Konbinazioa igarri ez baduzu bihar ere beharrera joan beharko duzu! Eta bihar ere sinistuko duzu jokatzeko ez duenak ez daukala irabazteko aukera ere. Bihar ere ez da zure eskuetan jausiko!

IRATZEA
t



(Abuztuak 18 irailak 16)
“Behoko buruek galduearazten du goiko burue!” xapla bota zizun aurrekoan zutaz maiteminarazten ahalegintzen zenbiltzan hark. Orduan ez zenuen esan gura zuena ulertu, baina orain konturatu zara hark ez zuela gau bateko txortaldia bakarrik gura.

META
t



(Irailak 17 urriak 16)
Hartu-eman hartan zuhurren ibili zena zu izan zinela uste duzu. Baina gogoratu: “Bere etsaiari eman badio noizbait norbaitek eskua, lehen edo gero ikusiko du galdurik bere burua”. Hemendik aurrera ondo zaindu lepoko bizarra!

HAZIA
t



(Urriak 17 azaroak 15)
Muturreko egoerak dituzu gogoko, oso gainera, baten batek lar ere esango luke. Amildegia baino lehen gelditzen igarri eta jakin behar da. Dagoeneko askotan asmatu duzu, eta “asko” horrek helmuga gero eta hubilago dakusa.

NEGUA
t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Badakigu berba batek ezin duela berak bakarrik bihotz eroria altxatu. Egin ezazu zeure orriotan doan mosua, hitzen bidez doakizun besarkada gartsua... eta zoaz lagunengana haiek erakutsiko dizkizute Himalayako gailurren goiak. Gora bihotzak!



mungia
oKINdegia

Algortan badaukagu
artisauen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

**KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA**



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin


1. Balakatuak, ferekatuak. 2. Larruzko oinetako. Arrazoi. 3. Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki. 4. Bizkaiko herria. Garai. 5. Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako hiria. 6. Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa. 7. Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu. 8. Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota. 9. Trebea. Sortu zintuena. 10. Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

1. Langile klasea. 2. Martxan jarriak. 3. Zirt edo ..., erabaki! Ikusmenaren organoa. 4. Asia Txikiko antzinateko hiria. Asiako estatua. 5. Nor pluralean. Amerikako estatua. Kanpo. 6. Zubereraz, ibarra, harana. Emakume izena. Uranioa. 7. Bos-tehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko. 8. Uztarriz lotu. Mila. 9. Iparraldean, keinu. Eskoziako familia-multzo. Amerikako estatua. Iodoa.

Soluzioak

I	N		N	N	T	U	S	T	A	K	S	A	V
A	M	A		A	O	I	A	I	A	I	A	I	A
L	A		L	A		G	A		R	I	G	A	
I	K	U		N	A	L	E	Z	E	Z	E	Z	E
B	T	R	A	B	A	B	A	B	L	A	B	A	B
N	U	R	I	A	U	A	I	R	I	R	I	R	I
O	R	A		V	K	I	T	I	G	A	T	I	G
E	L	T	V	B	O	I	N	I	R	O	I	N	I
O	I	Z		A	K	H	V	A	B	A	B	A	B
I	O												



asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Zarauzko semea
- Txapel batzuk irabaziak ditu
- Hitzak erabiltzen maisua da

> Aurrekoaren erantzuna: Julian Gorospe

> Irabazlea: **Janko Hormaza (Algorta)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Zuri Haitz
Jatetxe vegetarianoa



Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa



AURORA EGIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Egia familia gerra aurreko garaian

Algortako “betiko” familia horietako bat daukazue goikoa: Egia familia. Abizen hau oso ezaguna izan da herrian izen bereko hotela, Hotel Eguia hain zuzen ere, ia 70 urtez zabalik eduki zutelako. Argazkian aita Manuel bere semeez eta alabez inguratutik ikus dezakezue. Manuel itsasgizona izan zen baina gero hotel ospetsua zabaldu zuen. Bera bezala, bere seme gehienak ere itsasgizonak izan ziren, guztiak bat izan ezik: Robustiano. *Robus* medikua izan zen eta urte asko eman zituen Leioan beharrean. Manuelen alabak - Carmen eta Juani-, berriz, aita berak abian ipinitako hotelaren ardura hartu zuten itsasoan ibiltzeari utzi zion Ramon nebarekin batera. Argazkiaren data zehatza jakiterik izan ez dugun arren, gerra aurreko urteetan hartua dela jakin ahal izan dugu. ^m

Zutunik, ezkerretik eskuinera: Luis, Robustiano, Cesarea, Manuel eta Ramon.
Jesarrita: Juani, Manuel (aita), Carmen.

ANDONI AGIRREGOMEZKORTA > Vaya Semanita-ko aurkezlea

“Lan finko bat utzi nuen amesten nuen lanbideagatik”

Testua: **Esti Ezkerra**



Defini ezazu zeure burua.
Espero baino azkarrago bete den ametsaren protagonista.
Zein pertsonaia antzeztuko zenuke film batean?
Asko dira... Bai pertsonaia tragikoek bai komikoek erakartzen naute; denetik pixka bat egitea gustatzen zait.
Historiako zein pertsona miresten duzu gehien?
Egia aurretik, fede osoz beren helburuak lortu dituzten edo, behintzat, lortzen saiatu diren horiek miresten ditut, Che Guevara zein Gandhi, esate baterako.
Zure jakirik gogokoena. Arroza.
Aitor dezakezun bizio bat. Telebista eta zinema.
Oporretara joateko leku bat.
Bisitatu ditudan bi aipatzearren Kenia eta Txile, baina oraindik toki asko geratzen zaizkit ezagutzeko.
Zein hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Gezur potoloak.
Zer janzten duzu lo egiteko? Pijama.
Ezin zaitezke bizi... Adiskidetasunik eta maitasunik gabe.
Zein berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegian?
Euskal Herriko gatazkaren amaiera.
Ohitura txarren bat...
Erretzea, baina galdu nuen hori.
...eta sineskariaren bat.
Ez naiz bereziki sineskaria zalea, baina bai uste dudala gure planetatik aparte bizitza badagoela, baina ez galdetu non ezta zer bizitza klase den ere.
Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?
Txantxetan esan ohi dut lehoi ar bat izan nahiko nukeela, alferra eta beti bazkaltzen lehena. Baina txantxetan da, gero!
Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?
Ez naiz egunaz zehazki gogoratzen, baina hilabete batzuk baino ez dira pasa azkeneko alditik.
Zure azken erokeria.
Lan finko bat uztea amesten nuen lanbideagatik. m

LABURREAN— Garagardoa eskuan, gerturatzen zitzaion orori botatzen zizkion “epa” haiek ezagun bihurtu zuten. Gerora etorri ziren ETBrako protagonizatu zituen iragarkiak, txapela buruan eta abarkak oinetan, Euskal Herritik mundura. Beraz, Vaya Semanita! saioa emititzen hasi zirenerako arrunt ezaguna zitzaigun Andoni Agirregomezkortaren aurpegia. Eta saio horretan konprobatu genuen Andonik berezkoa duela grazia, ez dela ezer artifizia. Oscar Terolek eta taldeko zenbait aktorek TVE-1eko eskaintza onartu eta Madrilera zihoazela iragarri zuten uda hasieran. Andonik, baina, nahiago izan du ETBn jarraitu, eta orain Vaya Semanita!-ko esketxetan parte hartzeaz gain saioa aurkeztu ere egiten du. Ardura handiko zeregina da, halaxe dio berak, baina gustura dago egokitu zaion saltsan. Damutu, ez da egindako ezertaz damutzen. “Damututa ere, zerbaiteko luke horrek?”, diosku irribarreka.



Herri literaturaz goatzeko kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

- Ipuin harrigarriak 1
Kastillopranko • Biribil-biribilak
- Ipuin harrigarriak 2
Dar-dar • Ondo eginaren ordaina
- Ipuin harrigarriak 3
Gatza ala erregea • Biziak ezagutzeko hil
- Ipuin harrigarriak 4
Zapatari asmatzailea • Zerraldoan bizirik
- Ipuin harrigarriak 5
Ikazkina eta heriotza • Besterik ez bezalako kapela
- Ipuin harrigarriak 6
Estudiante Tonto • Ezkonberriak
- Ipuin harrigarriak 7
Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki • Zeruko berriak
- Ipuin harrigarriak 8
Pepetxu eta Popatxu • Kardulatza salatari

Urriaren 8tik aurrera
ASTEBURUETAN



Laguntzaileak:

